




ARGIA



ADINEKO EMAKUMEAK

Gorputzaz eta sexualitateaz, taburik gabe

24-29. orriak



**'Barruko deslokalizazioa',
atzeritarren lan-esklabotza
ikusezina Europan**

12 | EKONOMIA



**Ijitoen kontrako
arrazakeria
saltokietan**

34 | GIZARTEA



**"Hildakoen pozek
eta porrotek tokia
dute gurean"**

44 | HEDOI ETXARTE

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
**zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara kutxabankeko harremanetarako.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHU OTERO

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | BEÑAT IRASUEGI
- 21 | ITZIAR BARDAJI
- 22 | ARKAITZ ZARRAGA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: OINATZ MITXELENA
- 54 | BERANDUEGI



14 | KOLDO ALIJOSTES

Etzekoen historia idatzi du amezketarrak, eta horrela, Euskal Herriaren historiari bere zatitxoak ekarri. Miel A. Elustondok egin dion elkarriketaren bidez jasoko du irakurleak Francoren aurkako borrokako hainbat pasarte.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | "BARRUKO DESLOKALIZAZIOA"

Italian langileak greban asteke lanaldia 84 ordukoa ez, baina, 40koa izan dadin

Pello Zubiria

24 | GIZARTEA

Adineko emakumeen gorputzaz eta sexualitateaz tertulian

Miren Osa

30 | POLITIKA | ÁLEX ROMAGUERA

"ETAren indarkeria munizio politikoa izan da PP eta PSOErantzat"

Saioa Baleztena

34 | GIZARTEA | ARRAZAKERIA

Erosketak egitea amesgaiztoa da emakume ijitoentzat

June Fernandez

38 | EUSKARA | MITXEL ELORTZA

"Haur euskaldunak erdaldunekin nahastea nahi dugu, baina euskara ardatz"

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA | HEDOI ETXARTE

"Gure iragan pertsonalarekin eta hil direnen iraganarekin ere bizi gara"

Peru Iparragirre

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaitza taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Laborariak nagusi

Indiako herritarren (1.400.000.000) bi herenak landa eremuan bizi dira eta nekazaritza dute bizibide nagusi. 2020ko irailean gobernuak laborantzaren pribatizazioa erraztuko zuen lege sorta onartu zuenean, ulertzekoa da piztu zen suminaren handia. Hala, 250 bat miloi lagunek azaroaren 26ko greba orokorrarekin bat egin zuten, besteak beste, Delhiko sarrera nagusiak blokatuz hainbat astez. 700 bat lagun hil zituen Poliziak eta armadak.

Protesten urteurrena garaipen zaporez ospatu dute, Narendra Modi lehen ministroak lege polemikoak indargabetuko dituela iragarri du eta. Laborariek, baina, protestak ez dituztela berehala amaituko adierazi dute; Indiako Parlamentuan legeak behin betiko indargabetu, eta haien eskakizun guztiak bete arte. Irudian, emakume bat laborarien mugimenduaren zapi horia lepoan, urteurrena ospatzeko mobilizazioetan.



ARGIA berriz ere Jaurlaritzaren diru banaketatik baztertuta

ARGIA


Pandemiaren eraginari aurre egiteko" eta "hedabide profesionalak duten funtzio garrantzitsua" aintzat hartuz, hainbat hedabideri 5 milioi euro eman dizkio Eusko Jaurlaritzak, CIESen eta interneteko audientzien arabera proportzioan. Baina eguneroko prentsa idatziari eta irratitari baino ez dio dirua eman, eta baztertu egin dituzte interneten eguneroko dabilzanak, astekariak, tokiko hedabideak, espezializatuak, herri-telebistak... Tartean ARGIA.

Diru publiko gehien jaso ohi dutenak dira berriz ere denon dirua jaso dutenak. Eguneroko prentsa idatzi eta irratiei eman die diru hori Jaurlaritzak (%93,4 gaztelaniazko hedabideentzat izan da). Vocento taldeko *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariak 2,3 milioi euro jaso dituzte eta Noticias taldekoek ia milioi bat.

ARGIAtik Jaurlaritzari zuzenean galdetu diogu zein irizpideren arabera utzi dituzten kanpoan gurea bezalako hedabideak eta gure irakurleak, eta erantzuna motza bezain etsigarria izan da: "Egiturazko gastu gehien dituzten euskarriak izan ditugu kontuan". Hau da, nahiz eta jakina izan pandemiak gizarte-ko sektore guztietan izan duela eragina, hedabide guztiak barne, Jaurlaritzak soilik zazpi egunkari eta zortzi irrati aukeratu ditu bultzada emateko.

ARGIA ere eragin du pandemiak, nola ez, baina eutsi diogu; esfortzu handia egin dugu herritar guztion informazio eskubidea bermatzeko. Are gehiago, askotan esan dugun bezala, ez dugu inor ARGIArik gabe utzi arazo ekonomikoengatik, ezta aurrerantzean utziko ere.

Baina hori ez da dena. Bost milioi euro horiez gain, COVID-19ari lotutako publizitate instituzionalaren banaketa aztertu dugu eta hemen ere ikus daiteke zein hedabide lehenesten dituen Lakuak diru publikoarekin eta zein baztertu: *El Correo*ri 691.969 euro eman zizkion pandemiarekin loturiko iragarrien bidez, *El Diario Vasco*ri 413.018, *Deiari* 312.466... Zenbat jaso du ARGIAk? 2.700 euro.



Eusko Jaurlaritzak horrela banatu du 2020an COVID-19arekin lotutako publizitate publikoa

Dirua banatzeko orduan, CIESeiko audientzia datuak izan ditu kontuan Jaurlaritzak. 2021eko inkesta horren arabera, soilik papera kontuan hartuta, 64.000 lagunek irakurtzen dute ARGIA astero EAEn eta Nafarroan 12.000 lagunek – Ipar Euskal Herriko daturik ez du eskaintzen –, inoiz izan dugun emaitzarik onena. Baina badirudi milaka irakurle horiek ez dutela pandemiari lotutako ekimen publikoez informatuta egoteko eskubiderik.

Bistan da erabaki politiko horiekin eta baliabide publikoak erabiliz hedabide batzuk indartzen dituztela beste batzuen kalterako. Tamalez, ez da ezer berria. Ez da lehen aldia diru publikoaren banaketan ARGIA baztertzen dutena.

KAZETARITZA INDEPENDENTEA IZAN DADIN, JENDEAREN BABESA

Horrelako egunetan inoiz baino ageriago geratzen da: kazetaritza independenteak


jendearen babesa behar du ezinbestean. Eta areago, euskaraz informatuz gero.

ARGIAko kideen diru ekarpenak egin du posible komunikazio proiektu honek aurrera jarraitzea oztopo guztien gainetik, eta hala egiten jarraitzeko asmo irmoa dugu.

Babesa duenak ere, desberdin egin dezake. Horri esker hasi gara ARGIA herriz herri eta auzoz auzo bizikiletaz banatzen, edo kendu ditugu webgunetik multinazionalak gure datuekin negozioa egiteko zeuzkaten tresnak. Jendeak proiektu hau babesten duelako eskaini ditzakegu eduki guztiak doan eta Creative Commons lizentzia librepean, euskarazko multimedia biltegi osatuena barne.

Horregatik, biziki eskertu nahi dugu zure babesa. Denon artean lortuko dugu proiektua indartzen jarraitzea, babesa duenak zaindu dezakeelako elkar. ●

Eusko Jaurlaritzak 5 milioi € eman dizkie hedabide batzuei (2021-11):



93,4 % Gaztelaniazko hedabideak

6,6 %

Euskarazko hedabideak (Berria eta Bizkaia Irratia)

ANALISIA

Vocento estu eta ARGIA aparretan?

XABIER LETONA BITERI

Covid garaian hedabideek pasatu dituzten garai larriengatik 5 milioi euro banatu ditu Jaurlaritzak hamabost mediorene artean. ARGIA eta beste asko baztertuak izan dira. Laguntza jaso dutenen artean, euskarazko bakarrak Berria eta Bizkaia Irratia dira. Pozten naiz haiengatik, estatusunean lagungarri izango zaie. Gaztelaniazko hedabideek %93,4 jaso dute eta euskarazko hedabideek %6,6. Pozten naiz baita ere Gara-rengatik, azken urteetan ordaindu behar izan duten 3 milioi euroko zigor kaffianotik ateratzeko dena beharko dute.

Logikoa da estu dabilena laguntzea, baina estatusunaren neurgailu bat ere beharko litzateke, eta azalpen argi bat. "Zuk bai, zuk ez" sistemari kiratsa dario. Zergatik galdetu dugu Jaurlaritzan, eta azpiegitura handienak dituztenak lagundu dituztela erantzun zaigu. Nola neurtu dute nor dabilen estu? Azpiegitura handia izatea ote da estatusunaren neurgai-

lu? El Correo eta El Diario Vasco ARGIA edo Hamaika Telebista baino larriago? Txikiak ez ote dabilta estu? Jakina baietz.

Audientziak azaldu ditu Jaurlaritzak diru-banaketarako eta proportzioan egin dira. Ez da estatusunaren azalpena, baina badu logika bat. Logikarik ez duena da diru banaketarako irizpide gisa audientziak erabiltzea, baina horko hainbat mediok baino audientzia handiagoa duen ARGIA baztertzeari. Zergatik?

Aspaldi ari gara salatzen (2018ko 2.623 zenbakian, adibidez) euskal instituzio nagusiek publizitatearen banaketan modu nabarmenean baztertzaren dutela ARGIA. Jaurlaritzaren oraingo Covid publizitatearena ere latza da: El Correo 691.969 euro, El Diario Vasco 413.018, Ser 313.262, Deia 312.466, Gara 257.507, Noticias de Gipuzkoa 170.378, Berria 160.772, Noticias de Álava 139.627, 40 Principales 100.438, Onda Cero 84.902, Onda Vasca 64.429, Cope 52.933... ARGIA 2.752 euro.

ARGIAk, beste euskarazko hedabide denak bezala, diru-laguntza publikoak jasotzen ditu, bestela ez ginateke biziko akaso, ez gu ez besteak. Hori aitortu behar diegu gure instituzioei. Eta azken urteetan lan interesgarria egin da Herikimen eta euskal erakundearen artean gure sektorea duintzeko. Gardentasunez egindako bidea da, sektorearen ordezkari eta instituzioen artean adostuta, eta hedabideen aldetik diru-laguntzak azken zentimoraino ondo justifikatuta, behar den bezala.

Mozorrotutako diru-laguntza ere bada publizitate instituzionala. Gaztelaniazko prentsak jasotzen du gehien -bereziki Vocentok- eta, gainera, inongo justifikaziorik aurkeztu beharrik gabe poltsikoratzen da. Esparru konplexua publizitatearena, besteak beste, zigor-opari edo morrontzaren logikarekin ere erabiltzen delako. Badago zer aztertu, zer salatu eta zer bideratu. ●

Langile bat



ULA IRURETAGOIENA

Langile bat hil da etxe baten estalkiaren konponketan ari zela. Portugaleten gertatu da aste honetako ezbeharra, baina interneteko bilatzailean “langilea”, “teilatua” eta “heriotza” jarritz gero, albistekate luzea azaltzen da gure begien aurrean. Hainbeste kasu azaleratzen du eraikuntza bat egiteak ekartzen duen heriotz-arriskua eta eraikuntza sektoreak pairatzen duen lan-baldintzen prekarietatea.

Eraikuntzako hainbat lanek “kualifikatu gabeko esku-lana” eskatzen dute. Arkitekto batek sekula ez luke baieztapen hori babestuko, adreilu bat bata bestearen gainean jartzeak arte eta jakintza jakin bat eskatzen duela sinisten duelako, eusteko helburua duen paretari beste hainbeste zeregin eskatzen dizkiolako arkitektoak. Eraikitzaileak berriz, paretak buruhauste gutxien emango dion soluzioa nahi du, etorkizuneko arazoak ekiditeko eta diruz errentagarriena gertatuko zaiona bilatuz. Egia dena da, gure etxeak eta herriko eraikinak oraindik ere eskuekin egiten direla – makinariaren laguntzaz –, eta beraz eskuak dituen “edonork” burutu ditzakeela, baina batez ere, lan-baldintza gogorretan lan egiteko prestutasuna duen langileak egingo du, euriarekin, hotzarekin, eguzki azpian egitekoa baita. Eta kasu askotan, aldamiotik erortzeko arriskua hartuta.

Etxebizitza eraikuntza dirua ematen duen lana da gaur-gaurkoz, baina erantzukizun handiko lana ere bada. Arkitekto orok badakigu gure lanak ekar ditzakeen epaiketa arazoak, obraren eraikuntza prozesuan eta obra bukatutakoan ere bai. Segurantzaz zibilaz gain, eraikinen eraikuntzarako segurtasun neurrietarako dokumentu zehatz bat idazten da eta pertsona batek ziurtatu behar du betetzen dela. Hala ere, segurtasunean aurrezteko tentazioa handiegia da. Eraikitzailearen erru-zama kendu gabe, gizarteak eraikinak eta etxeak oso epe laburretan egiteko eskaera egiten du eta eraikuntzako lanen prezioak beti iruditzen zaizkigu garestiak. Merketzearen eta azkartasunaren balioa, batzuetan, langilearen bizitza da. ●

Bergarako erraustegi proiektuak kezka piztu du

LEIRE ARTOLA ARIN

Ekologistak Martxan taldeko ordezkariak Greene enpresari aurpegiaratu dio “gezurretan” aritzea eta herritarrei “datuak ezkutatzeari”; hondakinak pirolisi bidez tratatzearen kalteez ohartarazi du. Proiektuaren arduradunek, ordea, plantaren “onurak” azaldu dituzte, eta esan dute pirolisia ez dela errausketa.

Goiena hedabideak argitaratu duenez, Bergaran herritar ugari elkartu da Larramendiko industria poligonoan eraiki nahi duten erraustegi plantaren gaineko mahai-ingurura. Valogreen Paper BC SM enpresak paper fabriketako hondakinak gasifikazio bidez tratatzeko proiektuaren aldeko eta kontrako argudioak mahaigaineratu zituzte, azken asteetan herrian zalantza mordoa sortu baitu erraustegia eraikitzeko asmoak, eta haren aurkako ahotsak gailendu dira. Elkarretaratze jendetsua egin zuten proiektuaren berri izandakoan eta, Bergarako Udalarekin batera, alegazioak aurkeztu zituzte herritar askok.

Ekologistak Martxan taldeak lehenago salatu izan duenez, pirolisia deitzen dioten prozesua izatez errausketa da. Halaxe argitu du solasaldian Carlos Arribasek, Ekologistak Martxaneko hondakinaren arloko arduradunak: “Legearen ikuspegitik pirolisia erraustea da, baldin eta pirolisian lortzen dituzun produktuak erre egiten badira, kasu honetan bezala”, azaldu dio *Goienari*. Greene (Valogreen Paper-en erroa) enpresako arduradunak leporatu die hasieratik “gezurretan” aritzea eta plantak izango lukeen jarduera “mozorrotzen” saiatzea, herritarrei eta udalari informazioa ezkutatuta. Talde ekologistaren esanetan, zarata eta usaina ez ezik, kutsadura eta gas toxikoak ere sortuko lituzke: dioxinak, furanoak eta metal astunak.

Herritar asko ez ditu konbentzitu Greeneko arduradunek kontatutakoak eta datuak emateko galdegin dute

Aitzitik, guztiz aurkako azalpenak eman zituzte Greene enpresako Juan Jose Hernandez eta Enrique Araez arduradunek. Bergaran eraiki nahi duten plantan hondakinak “era jasangarriak” tratatuko lituzketela baieztatu dute, eta “materiala balorizatu” egingo luketela. Argudiatu dute prozesuak legearen eskakizun guztiak betetzen dituela. Haien esanetan, pirolisia ez da errausketa: “Teknikoki, errausketa material baten oxidazioa da. Pirolisia oxigenorik gabe eta tenperaturekin egiten den eraldaketa da, non gasa eta ikatza lortzen den; eta hori balorizatu daiteke”.

Mahai-ingurura bertaraturakoak zalantza gehiagorekin eta kezka handiagoarekin atera dira; eztabaida eta denbora gehiago eskatu zituzte. Herritar asko ez ditu konbentzitu Greeneko arduradunek kontatutakoak eta datuak emateko galdegin dute. Enpresariak jakinarazi dute nahi duen orok proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera duela, eta “beharrezkoa izanez gero” hobekuntzak ezarri ahalko direla.

UDALAREN BAIMENA BALIOGABETUTA

Uztailan Bergarako Udalak hirigintza-bateragarritasuna onartu zion proiektuari eta ingurumen-bateragarritasunaren onespeneren zain zeuden. Baina azaro hasieran baimena baliogabetu zuen udalak, iritzita enpresak hasieran aurkeztutako jarduera ez zettorrela bat geroago adierazitakoarekin. Proiektuaren tramitazioaren azken hitza ez dauka udalak, baizik eta Jaurilaritzak. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

C'est très joli



ARITZ GALARRAGA

Gisèle Sergier, hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea eta mehea. Politagoa ezin. Galdu du birjintasuna, baina ez zaio axola. Haurdun geratu da, abortatu egingo du. 1969an. Beti daki behar dena egiten Gisèle honek. Gisèle beste klase batekoa da. Ez alferrik, euskal nobelagintza modernoko lehen emakume protagonista dugu, Elsa Scheelenekin batera. Kurioski, atzerri-tarrak biak, ez euskaldunak, atzerrian kokatuta baitaude biak ala biak hartzen dituzten eleberriak. Inoiz ez dut jakin zergatik kokatu zuen Saizarbitoriak bere estreinako nobela Suitzan. Tira, badakit han idatzi zuela, Friburgen, soziologia ikasketak egiten zituen bitartean, eta imajinatzen dut zentsura pasatzen ere lagunduko zuela, halako gauzak, abortua eta, Suitzako neska baten larruan jartzeak. Eta gero, bada, Suitza, badakigu, politagoa ezin.

Kontatu izan ditu Suitzako gauza batzuk, ordea, Saizarbitoriak. Suitzatik eskualde bakarra ezagutu zuela, adibidez. Egin zituen lagunak Suitza italiarrekoak zirela, "geure antzekoenak zirelako". Eta aspertuta zeudela hainbeste txukuntasunez: "Gu, geureaz harro; eta beroiek, berriz, beren gizarte oparoaz nazkatuta, aberatsak, txukunak, libreak eta ongi zainduak izatearen kontzientzia txarrarekin". Kontatu dituen artean maiteena, aldiz, haxe: han euskaldunok, beti egiten ohi dugun eran, elkarrekin eta elkarren ondoan ibiltzen zirela, Mikel Lasa, Rafa Eiguren, beti herriminez, beti Euskal Herriari begira. Halako batean agertu zitzaion Matxain izeneko bat, gaintzarra, iheslaria. Eta guztio-na zen herriminak jota bizitzea, baina azken horrena bezalakorik ez da ezagutu: Norbaitekin topo egiten zuenean *Tu connais Gaintza?* galdetzen zion, eta, noski, ezetz erantzuten zioten. Orduan berak: *C'est très joli*. Ez dut ukatuko nik Gaintza ezin politagoa denik, baina zalantza gehiago daukat etengabe atzera, etengabe etxera, etengabe utzi duzunari begira egote hori, beti penetan, izan daitekeen osasungarri. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



COVID ziurtagiria

Nafarroako ekitaldi jendetsuetan eta aisialdiko establezimenduetan beharrezkoa izango da ziurtagiria. EAEn, Jaurilaritzak helegitea aurkeztu du Espainiako Auzitegi Gorenean, ziurtagiria baimentzeko. Ipar Euskal Herrian, txertoaren hirugarren dosia beharko da ziurtagiria baliogarri izateko.

Azoka

Durangoko Azoka presentziala eta streaming bidezkoa izango da, baina aurrez izena eman beharko dute Landako Gunera zein Ahotseneara joan nahi dutenek (durangokoazoka.eus helbidean). Azoka bisitatzeko ordu eta erdiko bost txanda egongo dira egunero, 10:00etatik 20:00etara.

Bertsolaritza

Bi hilabete iraun dituen Nafarroako 45. Bertsolari Txapelketan, lehen aldiz finalera iritsi eta txapela jantzi du Saioa Alkaizak, Eneko Lazkozekin buruz burukoa jokatu eta gero. Bertsolaritzaren alde ekarpen handia egin duen Estitxu Arozenak jantzi dio txapela irabazleari.

TEKNOLOGIA

Europako adimen artifizialaren legea



DIANA FRANCO

Hainbatek agertu dit Europako Adimen Artifizialaren Legearen inguruan kezka, eta ikertzen hasi naiz. Adimen Artifiziala tresna berri bat da gure gizartean eta beste teknologia batzuk bezala gizartean eragiteko eta gizartea eraldatzeko gaitasuna du. Adimen artifizialek berezkoa duten ezaugarri bat da aldaketak modu ikusezinean egin ditzaketela, kontrolatzeko eta ulertzeko modu zailean. Gainera, adimen artifizialek jabeak dituzte, askok ditugun azpiegitura digital gehien jabe berak.

Hainbat eragileren arabera (EDRi, Xnet, UOC...) lege honek onurak ekarriko ditu, baina hutsuneak ditu, batez ere datuen ekonomia loturikoak. Aipagarria da bai marketinari eta jokabideen bideraketari, bai espazio publikoaren zelatatzeari loturiko adimen artifizialen erregularizazio falta. Jokabideen bideraketaren kasuan pertsonen egoera fisikotik, prozesu fisiologikoetatik, biologiatik... hartutako datuen bidez pertsonen emozioak inferitu eta eurretan eragin ditzaketen adimen artifizialengan arreta handiagoa jarri behar luke legeak. Baita ezaugarri biometrikoen bidez espazio publikoan pertsonak jarraitu, taldekatu eta epaitzen laguntzen duten adimen artifizialengan ere.

Badago beste ideia bat azken horri lotuta, eta giza eskubideen inguruan lan egiten duten eragileak bereziki arduratzen dituenak: polizia prediktiboa. Hau da, gure gorputzen fisionomia aztertuz gure izaera, nortasuna, sinesmen politikoak eta justiziari loturikoak aztertu eta profilen aurreikuspenak eginez arrisku ebaluaketak eta horrekin delituen, edo eragotzi nahi diren beste zenbait arazoren aurreikuspenak egiteko sortzen diren adimen artifizialak.

Jolas taula baten irudia datorkit burura. Jolas taularen jabeek hor egiten denaren inguruan botere osoa dute, eta legegileek ez dute taula horren jolas dinamika guztiz ulertzen, ezagutza guztia partekatzen ez den heinean. Beraz, dinamika horri aurre egiteko estrategia bikoitza izan izan behar da: alde batetik, legislatzen jarraitu, horrekin batera arazoa ulertzen ere joango garelako, eta bestetik, jolas taula berriak sortu daitezkeen bultzatzen jarraitu. ●

ANALISIA



ORLANDO SIERRA

Kolpe bigunaren amaiera

AXIER LOPEZ

1982an demokraziara itzuli zenetik, Hondurasko hauteskunde garrantzitsuenak izan dira askorentzat igandean. Herritarrek aukeratu dute Juan Orlando Hernández presidentea ordezkatzeko duen pertsona, 12 urtez boterean egon ondoren eta ustelkeria eta narkotrafiko kasuek itota –estatuak finantzatzeko droga-trafikoaren gaineko arduraleporatu diote AEBetako fiskalek epaiketa batean–.

Botoen %51 zenbatuta, Xiomara Castro Alderdi Libreko hautagaia da irabazle, botoen %53,61 eskuratuta, Nasry Asfura hautagai ofizialistak baino 20 puntu gehiago (%33,87). Hondurasen ez dago bigarren itzulirik eta boto gehien bildu duen hautagaiak irabazten du.

Beraz, oso litekeena da 2009ko Zelayaren aurkako “estatu kolpe biguna” bultzatu zuen alderdiak boterea galtzea. Manuel Zelaya 2005ean lortu zuen presidentzia zentro-eskuineko Alderdi Liberalaren eskutik. Kargua hartu ondoren, baina, Zelaya ezkerreko biratu zituen haren politikak, orduan Amerikan sortzen ari ziren ezkerreko gobernuekin bat eginez– Brasilgo Lula, Venezuelako Chávez, Boliviako Morales, Ekuadorreko Correa...–. Batzar Konstituziogilea martxan jartzen saiatzen ari zenean, 2009ko ekainean elite kontserbadoreak, armada lagun, Zelaya boteretik kendu eta herrialdetik kanporatzea lortu zuen.

Justizia poetikoa dirudi 12 urteren ondoren presidentea Manuel Zelayaren emaztea eta 2009an lehen dama zena izatea orain elite kolpistaren ordezkari politikoa boteretik botako duena. Okerrik ezean, Xiomara Castro lehen emakume presidentea izango da Hondurasen, azken 24 urteetan hauteskundeetan izandako parte-hartzerik handienarekin (% 68), eta bipartidismoa, Hondurasen ere bai, zaurituta utziz.

Joera sozialdemokrata duen espektro politiko osoko alderdien koalizio baten eskutik aurkeztu da Castro. Hala ere, 2009an Zelayarekin gertatu bezala, bipartidismoak komunismoaren komodina haizatu du berriro haren kontra egiteko, Castrok “komunismo bolibartarra” inportatu nahi duela esanez.

Castro boterera iritsiko da lapurreta, ustelkeria eta droga-trafikoaren aurkako bandera altxatuta. Eta, egia esan, hori ez da izango zuzendu behar lukeen egiturazko arazo bakarra. Unibertsitate Nazional Autonomoaren arabera, Hondurasko hamar milioi biztanleen %59 pobrezian bizi da. Gainera, azken urte hauetan bi urakan handik jo dute herrialdea, eta pandemiak ondorio gogorak eragin ditu. Honduras migrazio-gune nagusieta bat bihurtu da munduan. Ia milioi erdi hondurastarrek etxetik alde egin dute azken lau urteotan, ustelkeriak gainezka egindako herrialdean bizitza duina garatzeko aukerarik gabe. ●

38.930

euro "otordu, puru, gin tonic eta txupitotan xahutu dituelako"

Trapagarango alkatearen dimisioa eskatu du EH Bilduk. **Xabier Cuellar** jeltzalea 2011tik da Trapagarango alkate, eta agintean izan den hamar urteotan "justifikatu gabeko otordu, edari eta joan-etorrietan" 38.930 euro xahutu dituela salatu du koalizioak.



%25

Kataluniako ikastetxeetan ikastorduen %25 gazteleraz egitera behartu du Espainiako Auzitegi Gorenak, murgiltze ereduaren aurka ebatziz. Pere Aragonès presidenteak eraso larritzat jo du, eta murgiltze ereduarekin segiko dutela adierazi du.

6

hektareako lursaila erosi du Soraluzeko Baso Biziak elkarteak, leheneratzeko. Espezie exotikoak landatzeko joerari aurre eginez, bertako basoari eta biztanle guztiei aterpea eskainiko dien eremu bat sortzeko asmoa dute. Urtea bete berri du elkarteak, ehun bazkideko langa gaindituta.

27

migratzaile hil dira Mantxako Kanalean itota, itsasoa gurutzatzeko saiakeran. Gehienak errefuxiatu kurduak ziren eta itsasoa ontzi puzgarri batean igaro nahian zebiltzan, hondoratu egin denean. 2020an 25.000 lagunek baino gehiagok egin du Frantzia eta Ingalaterra arteko bidaia arriskutsu hori.

Abendukoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa

'BARRUKO DESLOKALIZAZIOA': ITALIAN LANGILEAK GREBAN ASTEKO LANALDIA 84 ORDUKOA EZ, BAINA, 40KOA IZAN DADIN

12 x 7, aste eta jai atsedenik gabe, hau da, hamabi orduz zazpi egunetan eta urte osoan. European gertatzen ari da 2021ean eta ez bazterreko ofizioetan, eremu aberatsetako industriari baizik. Horra antropologo batek 'barruko deslokalizazioa' deitu fenomeno: Txinako prezioetan ekoizteko Txinako lan-baldintzetan lan egin baina... etxean bertan. Nagusiki etorkinek nozitzen dituztelako izango da gure titularretaraino iritsi ez izana.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Lan gatazken aktualitatea jorratzen duen *Labor Notes*-etik jakinarazi du Morganne Blais-McPhersonen urriaren 28an: "Oihalgintzako langile etorkinek 84 orduko lan-astearen kontrako borroka luzea irabazi dute Italian". Jantzien industriari sona duen Praton gertatu da, Florentziatik hurbil. "Nekatuta lan egitez egunean hamabi orduz, astearen zazpi egunetan, oihalgintzako langileak daude Italian 8 x 5 eskubidea lortzeko geroz eta indartsuagoa den mugimenduaren muienean -zortzi orduko lanaldia asteko bost egunetan-".

Urriaren 12an Pratoko Texprint fabrikara itzuli ziren hiru langile pakistandar, urtarrilean 40 orduko lan astea lortzeko abiatutako greba irabazita. Sarrerari ongi etorria egin zieten beste langile gehiagok eta Si Cobas sindikatuko kideak oihuka: "Mai piu schiavi!". Si Cobasek adierazi zuen espero zuela konpainiak laster berriro onartzea greban parte hartutako gainerako langileak.

Texprinteko gatazkek egun argira ekarri du Italiako industriaren barruan hainbat obrerok nozitzen dituzten lan baldintza harrigarriak (Europako estandarretarako) eta zein bortizki erantzuten dieten ugazabek bezala estatuak haien eskariei. Modaren alorrean *Made in Italy* ospetsua ekoizten duen industriaren gune gotorretakoa baita Prato, Italiako Toskanan.

Publikoan ukatu arren, aspalditik zen jakina Pratoko industrigunean eguneroko hamabi orduko lanaldietan ari zirela Txinatik, Asia Hegoaldetik eta Afrika Ekialdetik etorritakoak, sarritan kontraturik gabe. Texprint konpainiak bere burua honela aurkezten du webean: "Gure produktuak azken tendentziei jarraituz egindako ikerketa zorrotzen emaitza dira. *Team* espezializatu bat daukagu une bakoitzeko modari adi". Irudi *fashion*-aren gerizpean, ordea, Texprintek esklabotzaren pareko baldintzetan enplegatzen zituen obreroak klase guttiatiko oihalak estanzazio digitalez koloreztatzeak makinak mugiarazteko.

Beharginetako askori aprendiz kontratua eginga zioten, zergak bezala karga sozialak gutxitu eta langilea prekariotzari atxikitzeke. Oihalgintzak Italia mailan daukan hitzarmenak obreroei bermatu arren opor eta jai egunen ordainketa, gaixotasunagatik atsedena, lan istripuen kalte-ordainak eta beste, Telprintekoek horrelakorik ez zeukaten batere.

Hauetako batzuek Sindacato Intercategoriale Cobas (Si Cobas; *cobas* da *Comitati di base* laburtuta) sindikatu txiki bezain borrokalariarengana jo zuten. 2010ean fundatutako Si Cobas bereziki Italia iparraldean da ezaguna, logistika alorreko langile etorkinen eskubideez okupatzen da. Gogor fama dauka, era-

biltzen dituelako grebak, kale mozketak eta lantokien blokeatzeak. Horrelakoei ugazabak saiatzen dira hesia saihesten, materialak sartu eta ateratzeko auto partikularrak erabiliz, lanak beste fabriketara eramanez, eta abar. Aldiz, langileek hesia eguneroko 24 orduetan irimo atxikitzeke laguntza behar dute inguruan, janaria dela, lotarako kanpalekua... eta ugazaben *matoiei* aurre egitea.

ESKLABO IKUSEZINAK

Matoiak aipatzea ez da ahoberokeria. Abuztuan konpainiak bidalitako gizonek makilak eta harriak hartuta eraso zieten piketeen zeudenei, eskuak garbitzen zituzten polizien aurrean, irudiak zabaldu ziren sare sozialetatik. Ez da soilik Texprinten gertatu, Praton bertan urriaren 11n Dreamland konpainiaren atarian protestan ari ziren langile etorkinak jipoitzera joan ziren beisboleko makilak hartuta ugazabak eta hauek ekarritako morroiak. Lau obrero bidali zituzten ospitalera zaurituta. Mafiaren esku hartzea ere salatu zuten langileek.

Gertakizunaren irudietan nabarmena da erasotzaileetako batzuk jatorriz txinatarrak direla, eta badu azalpena. Italiaren oihaleko esportazioen %20 inguru ekoizten duen Prato hiri industrialean langileen %24 atzerritarrak dira eta hauen erdia baino gehiago txinatarrak, ofizialki 12.000 pertsona, baina zenbait



TEXPRINT

fabrikaren atarian grebari hilabete luzez eutsi dioten langile etorkinak. “Esklabo sekula gehiago ez. Bizitza ederragoa nahi dugu” dio banderolak. Argazkia: Produzioni dal Basso.

iturriren ustean 20.000tik gora. Txinatarrek Praton kudeatzen dituzten 3.000 tailerrak dira *Made in Italy* saltzen duten konpainien azpi-kontratak, European indartsua izan arren gutxi aipatzen den ‘barruko deslokalizazio’ deituaren adibide garbiak.

Délocalisation sur place –hitzez hitz “deslokalizazioa lekuan bertan”– Emmanuel Terray antropologoak asmatu zuen 1999an deskribatzeko globalizazio neoliberalaren osagai funtsezko hau. Bertako deslokalizazioak azaltzen du metropoli kapitalistan bertan paperik gabeko langile atzerritarrek enplegatuz kopiatzen ditugula Hirugarren Munduan obreroek nozitzen dituzten lan baldintza berdinak –soldata izugarri motzak,

babesak ezabatzea, sindikatzeko eskubiderik ez, mugarik gabeko lanaldiak, *beltzean* kobratzea, eta abar–.

“Ondorioz, –zioen Terrayk duela bi hamarkada eta geroztik gauzak ez dira zuzendu– beren jarduera deslokalizatzeko aukerarik ez duten enpresek legez kanpoko lana erabiltzen dute kanpora deslokalizatuko balute bezala, horra zer den *délocalisation sur place*. Hein batean barruko deslokalizazioak are abantaila handiagoak ematen dizkio ugazabari atzerrira deslokalizatzeko baino, zeren eta azken honekin badauzkazu batetik, epe arazoak (gehi kanpoan ekoiztutakoa hona ekartzearenak) eta bestetik, gastu gehiago, zenbait teknikari edo arduradun bidali behar dituzulako atzerrira”.

Paper guztiak eskuratu ezinik dabil-tzan etorkinek, beraz, zeregin funtsezkoa daukate hemen bertan, ustez lan merkata araututa daukan Mendebalde aberastean kosteak apaltzeko garaian, eta oso nabarmena da bost sektoretan, Terrayren analisisan. Obra publikoen alorrean, administrazioen kontratuak lortzen dituzten konpainia handiek beren enplegua *garbi* edukitzen dute baina lan guztiak egin behar dituzten azpi-kontratek prezio merkeen gerran sartzeko etorkin ez arautuetara jo beharra daukate. Ostalaritza da lan *beltza*-ren epidemiak jotako bigarren sektorea, ostatu, hotel eta abarrak. Hirugarren dator oihalgintza. Eta beste biak dira pertsonen zainketa eta nekazaritza, eskulan merkea eta asko behar dutenak. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com



TXABI ETXE BARRIETA NOLA HILTZEN ZUTEN IKUSI ZUEN GURE OSABAK



Hamabost urte baino gehiago dira ARGIAren orrialde hauetan bertan Ezkioko irudipenak aztertutako William Christian antropologoak bere egia esan zuenetik, seme-alabei ezinezko zaiela gurasoen oroitzapenak gordetzea. Koldo Alijostesek ezina egin du. Ekinez.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Christianen egia irauli duzu, zeure familiaren historia kontatu duzu *Bizitzak* (Pamiela, 2019) liburuan.

“Gure historia etxez etxe”, ere badio.

Bernardo Atxaga eta Asun Garikanoren proiektua da “Gure historia etxez etxe”. Jendea idaztera bultzatu nahi zuten, familiaren historia kontatzera. Eta familiaz familia eta etxez etxe, Euskal Herriaren historia kontatzea zen helburua. Oso interesgarria iruditu zitzaidan ideia. Familiaren historia, gauza hurbila da, handia, erreala. Ideia polita iruditu zitzaidan garai bateko historia etxez etxeko hori biltzea. Nire kasuan, *Bizitzak* liburua baino lehen hasi nintzen etxean kontatzen zituztenak grabatzen. Aita zena oso kontalari handia genuen. Bazkalondoetan-eta, historiak kontatzeko ohitura handia zuen. “Aitonari halako gertatu zitzaion... Osabari beste halako... Ni, berriz, hemen-

dik hara ibili nintzen...”. Horrelaxe. Eta, behin, neure buruari esan nion: “Aita joaten denean, akabo historia hauek denak! Niretzat ez ezik, nire ondorengoentzat gordetzea ere polita izango lukek”.

Aitari grabatzen hasi zinen?

Bai, idatzi egin behar nituela pentsatu nuen, eta, horretarako, onena grabatzea zela iritzi nion. Eta arratsalde pare bat hartu eta aitari grabatzen hasi nintzaion. Eta liburua osatu nuen, eta gurasoek urrezko ezteiak ospatu zituztenean, erregalatu egin nien. Neuk maketatu nuen, neuk inprimatu. Errementari kalean [Gasteiz] bada koadernatzaile artisau bat, eta berak koadernatu zizkidan hiru ale. Etxekoentzat idatzi nuen: gurasoentzat eta bi semeontzat. Baina behin, Asun Garikanorekin gertatu nintzen. Tolosarra Asun, eta tolosarra du aita, Andoni. Gure

aita, berriz, Ibarrakoa zen, baina Tolosan asko ibilia. Alegia, bazitekeela nik aitari bildutako historiak Asunen aitak ere jakitea, eta utzi egin nion liburua Asuni. Irakurri zuen, eta Bernardok [Atxaga] ere bai, eta *Bizitzak* idaztea proposatu zidaten.

Orduan, lehendik idatzia zenuen liburua?

Partez, bakarrik. Etxeko liburuan, etxe-koen kontuak ageri dira, kontatzen zituzten bezala. *Bizitzak* liburuan, berriz, testuinguru historikoa erantsi diot etxe-koen kontakizunari. Osatu egin dut etxe-koentzat egindako liburua. Gertaerak testuinguruan jarri, eta memoria historikoa ere egin dudala uste dut. Benetako bizi-penak dira liburukoak: gertaera handiak eta txikiak, arruntak eta bereziak, goxoak eta garratzak... Historia eta istorio asko.



Koldo Alijostes Bordagarai

AMEZKETA, 1962



Teknologia irakasle eta IKT arduradun Gasteizko Koldo Mitxele-
na Institutuan. Historia du maite,
memoria historikoa landua du
oroimenarenharra.koldomitxe-
lena.net gunean, eta mitologia,
berriz, amaroa.eus-en. *Euskal
Herriko mitologiaren jainkoak eta
jeinuak* liburuaren egile da iaz-
ko *Bizitzak* baino lehen. Gure so-
laskidearen kasuan, bizitza bete
kontu bezainbat da kontu bete
bizitza. Gure historia kontatu du,
etxetik.

Fikzio egileentzat inspirazio iturri pa-
regabea dela iruditzen zait, gehienetan
errealitatea dute-eta abiapuntu. Be-
netan gertatutako pasarte bat hartu,
aberasten eta borobiltzen dute, eta is-
torio ederrak sortzen dituzte. Nik ez
dut gaitasun hori. Errealitateak fikzioa
gainditzen duela ere esan ohi da...

Txabi Etxebarrietaren heriotza bertatik bertara kontatu duzu, adibidez.

Gure osaba [Eduardo Osa Santibañez]
hantxe zegoelako. Beti kontatu izan da
han Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Saras-
keta zeudela. Eta guardia zibilak, ale-
gia. Baina beste lekuko bat ere bazen
han, ezkutukoa: gure osaba zena. Etxe-
barrieta hil zuten, eta Sarasketak ere
ez zuen jakin zer gertatu zen, larri har-
tan korrika, ahal zuen moduan eta nola
hala alde egin zuen-eta handik. Gure
osaba, berriz, autoan zegoen, bera zen
txofer. Hantxe zegoen, gertatutakoa
bizi izan zuen. Batetik, guardia zibila
tiroka, eta Sarasketa, korrika. Bestetik,
Etxebarrieta nola hiltzen zuten ikusi
zuen. Osabak kontatuta bezala kon-
tatzen zuen gure aitak. Etxebarrieta
bertatik bertara hil zutela esaten zuen.
Guardia zibil batek Etxebarrieta aurrez
aurre helduta zeukala, ez mugitzeko
eran, eta beste guardia zibilak, Saraske-
tak ihes egin zuenean, haiengana joan
zela, pistola bi gorputzen artean sartu,
arma jiratu eta tiro egin zuela Etxe-
barrietaren kontra. Halaxe kontatzen
zuen beti gure aitak, osabak
berari halaxe kontatuta.

Hori ez zen inoiz argita-
ratu, *Bizitzak* liburuan
agertu arte. Damutu
zitzaidan osabari zu-
zenean kontu gehia-
go ez bildua. Osabak
aitari kontatuta jakin
nuen... Zenbat histo-
ria galdu ditugun! Pena
ematen dit.

**Etxebarrietaren heriotzak
zigorra ekarri zizuen. Sarasketa
jipoitu zuten, harik eta zuen osaba-
izeben izenak esan zituen arte:
Eduardo Osa eta Juli Alijostes.**
Osaba-izebak saltsan sartuta zebil-
tzan. Baita gure aita ere. Garai hartan
asko bezala. Frankismoaren kontrako
borroka zen. Tolosan, Ibarran, Amez-
ketan... abertzaleak saltsan sartuta
zeuden. Gure osaba-izebak ere hortxe

zebiltzan, eta ezagutzen zuten Jokin
Gorostidi, eta Txabi Etxebarrieta. Txabi
bi etxean eduki zuten, eta hil zuten
egunean autoan eraman zuen osabak,
Sarasketarekin batera, alegia. Gero, har-
rapatu zutenean, "jesukristorenak"
hartu zituen, guardia zibilek emanda.
Aitak kontatzen zuen osaba eta biak
eduki zituztela Tolosako kuartelean,
atxilotuta. Eta hango garrasiak, hango
antsiak gure osabarenak. Gero, Bur-
gosko prozesua, osabaren kartzela-
tzea, izebaren deportazioa etorri ziren.

Nora bidali zuten izeba, Juli Alijostes?

Espainiara. Jaengo Navas de San Juan
herrira. Harekin batera deportatutako
batekin hitz egin nuen, Eugeni Sara-
sola. Hark kontatuta dakit. Autobusez
eraman zituzten. Hemengo presoak
ziren denak, nonbait ere. Haien deli-
tuak ez ziren larriak, manifestazioren
batean parte hartzea, propaganda ba-
natzen harrapatu zituztela... Horre-
lakoak. Eujeniren kasuan, adibidez,
Leaburu-Gazteluko erretore etxean
harrapatu zuten, bertako parroko zen
Lukax Dorronsororekin han zegoen
batean. Ez akusazio eta ez delitu, baina
Eugeni ere atxilotu egin zuten, eta de-
portatu. Eugeni gogoratzen da autobus
hartan denak hemengoak zirela, gehie-
nak gizonezkoak, baina lau emakume
ere bazirela. Eta, laurak, autobusaren
atzealdeko kaiola batean sartu zituz-
tela. Autobusaren barruan, kaiola bat,
burdin sare zegoen. Gure izeba



**Familiako zenbait
kidek historiaren gertaera
garrantzitsuak barrutik bizi
izan zituzten, ez ziren egon
aparte begira, alde jakin
batean egin zuten.
Eta ni hortik nator"**

Juli ez zuen ikasketarik,
baina oso buruazkarra
zen. Navas de San Juan
hartara heldu, eta go-
rria, ETAKoa... ez zu-
ten gogo onez hartu.
Mezatara joan zen
arte! Herrikoek izeba
mezatan ikusi zutenez
gero, denak lagun! Eu-
geni Albacetera deporta-
tu zuten.

**Aitaren atxiloaldiaren lekuko
izan zinen Amezketako plazan
lagunekin jolasean ari zinela. Zer
sentitu zenuen aita guardia zibilek
zeramatela ikusi zenuenean?**
Mutil txikia nintzen, sei urte nituen...
Nik uste amorrua sentitu nuela. Eta
tristura. Aita bilurrak lotuta zerama-
tela ikusi nuen. Hitzik gabe gelditu
nintzen, amorratuta. Gure etxea pla-

zan-plazan zegoen Amezketan. Guardia zibilen jeepa etorri, gure etxe aurrean gelditu, haiek gure etxera sartu... eta handik pixka batera, aita zeramatela ikusi nuen. Umezurtz sentitu nintzen. Eta ama-rengana joan nintzenean, hura sukaldean negarrez... Umeak ez daki zer gertatzen ari den. Amorrua du, aita era hartara eramanean dutela ikusita. Tristura, ama sukaldean negarrez ikusita. Sei urte nituen eta, hala ere, nola gelditzen diren gauza horiek buruan! Gainera, nik ez daukat memoria handirik.

Memoria handirik ez? Ganbara oroitzapenez beteta daukazu...

Gauza asko ahaztu egin ditut, hala ere! Beste zera bat ere gogoratzen dut. Aberri Egunkoa. Donostian. [1968] Larri hura! Polizia zaldi gainean Donostiako kalean! Pentsatu nola begiratu behar dion ume txiki batek zaldi handi bati, han goran! Eta zaldiak karrikan trostan, ka-kan-kan-ka-kan-ka-kan! Hura larria! Eta gu korrika! Gogoratzen naiz, atari batera sartu, egurrezko eskailerak igo, dena ilun, eta gora eta gora, ganbararaino igo ginela. Hantxe egon ginen, ilunetan, jarrita. Atera ginenean, aitari esaten nion: “Goazen *zubeldia* hartzera!”. Niretzat autobus guztiak *Zubeldia* ziren-eta! Amezketako autobusa besterik ez nuen ezagutzen, eta hura *zubeldiatarrena* zen. “Goazen *zubeldia* hartzera!”. Beste oroitzapen bat, bizi-bizia, Tolosakoa. Santa Maria elizan ikurrina jarri zuten. Kanpandorrean gurutzea dago, eta, hantxe jarri zuten ikus-tera. Eta ikustera joan ginen! Hunkituta gu, ume txikiak izanagatik ere! Baina ikastolan ere halaxe ibiltzen ginen Amezketan, ikurkinak margotzen-eta. Elizako ikurkinaren hori ere grabatuta gelditu zitzaidan. Txikitako gauzak nola gelditzen diren, ezta? Harrigarria da.

Ikastolaren hasieraren lekuko zara zu zeu...

Bospasei ume ginela uste dut. Guraso batzuk elkartu ziren herrian, gelatxo bat inguratu zuten, eta hantxe gu. Koro Zabala, Arantzazuko Pello fraidearen arreba izan genuen lehen andereño. Neska gazte-gaztea zen... Eskola 'nazionalik' ez nuen nik probatu, eta eskerrak, zerren orduko 'nazionala' benetan zen 'nazionala'. Anaia, hala ere, hantxe ibili zen. Mattin.

Liburuan kontatu duzunez, Mattinek ere galantak hartu zituen. Guardia zibilak beti lanean.

Bai. Amezketan, hiru edo lau talde izango



ziren, ETako. Kuadrilla diferentetako jendea zen, eta denak *erakundean* sartuta! 16 urte-edo izango zituen orduan Mattinek. Propaganda banatzen hasi ziren, nonbait ere ikurrina jartzen. Festetan, behin, argia kendu zuten... Horrelako kontuak. Oso gazterik. Halako batean, aitarekin batean gertatu zen Tolosako kuarteleko ziegetan. Hamasei urte zituen! Iraultza egin-go zutela pentsatzen zuten, Euskal Herria askatuko zutela, borroka beharrezkoa zela. Adin horretan!... Ederrak hartu zituen. Ondorioak izan zituen. Berak esaten du, denbora egin zuela, beti pentsatuz atzetik polizia zuela. Eta Donostian bizi zenean, leihotik begira jartzen omen zen: “Hori [polizia] *sekreta* izango ote da?”. Tentsio horrekin bizi izan zen. Poliziaren eskuetatik pasatu direnei ustekizun horiek gelditu zaizkio barruan.

Etxekoei grabatzen hasi zinenean ohartua zinen lekukotasun hauen balioaz?

Ez. Ohituta nengoen kontu haiek aditzen. “Familiako kontuak” zitzaizkidan. Aita kontalaria izaki! Aitonari, aldiz, sekula ez nion ezer aditu, eta hark gorriak ikusi zituen gerran. Amak ere ez zuen askorik kontatzen. Bizi dugu ama. Ez da kontalaria. Etxekoagoa izan da beti. Aita, berриз, saltsa guztietan sartuta ibili zen. Eta osa-

ba-izeben lekukotasunik ez nuen zuzenean jaso. Horixe dut pena. Berandu konturatu nintzen zer balio zuten familiako kontu haiek. Gaztetan, beste nonbait izaten dugu burua. Heldutan jabetzen zara etxekoen historiaren balioaz. Hala ere, balioa, bakarrik gure etxekoentzat zutela uste nuen. Gure alabek historia horren berri jaso zezaten idatzi nuen liburua. Nik kontatu ez banitu, alabek ez zuketaren familiaren batere konturik jasoko. Eta, orduan, akabo!

Grabatu, eta paperera ekarri zenituen familiakoei jasotakoak.

Eta idazten hastea erabaki nuenean, aita hilda ordurako, audioak entzuten hasi... negar saio ederrak egin nituen! Gogorra da. Lehenengo liburutxo, etxekoentzat egin nuena, hirugarren pertsonan idatzi nuen, baina *Bizitzak* idazten hasi nintzenean indartsuagoa, benetakoagoa iruditzen zitzaidan lehen pertsona. Transkribatzen hasi, eta horrexekin egin nuen topo: “Ahozko hau ezin dut nire egin eta hirugarren pertsonan eman”. Hasierako asmoa aitari grabatutakoa osatzea eta borobiltzea izan nuen. Hirugarren pertsonan aritzea pentsatzen nuen, baina laster konturatu nintzen ezetz, lekukoek esanda bezala idatzi behar nuela, lehen pertsonan.

Zeuen etxeko historia idatziz, Euskal Herrikoa ere idatzi duzu.

Gustatzen zait historia. Gauzak noiz egin ziren, nola, nor eta nor ibili ziren... Gauzak pertsonalizatzea eta zehaztea gustatzen zait, datu asko ez dira-eta inon ageri. Datu txikiak dira, baina garrantzizkoak. Tolosako Erbia jatetxearen berri, adibidez, oraingo gazteek ez dute. Baina, garai hartan, bazuen inportantzia. Beharbada, ukitu sentimentala du horrek, erromantikoa, beharbada.

Zeure familiaren historia kontatu duzu, eta kontatzeak berak, eta kontatzeko modu jakin horrek, zeu erretratatu zaitu...

Badakit, bai. Jakitun naiz. Ez dut sentimendu askorik isuri, familiaren nondik norakoak erretratatzeko nau, baina ez kutatzekorik ez daukat. Gure familiari gertatu zaiona, berezitasunak kenduta, Euskal Herriko hainbat familiari gertatu zaio. Zenbat jipoitu dituzte kuarteletan? Zenbatek igaro ditu urteak eta urteak kartzelan? Zenbat deportatu izan dira? Garai hartan, eta gerokoan, alegia. Baina ni garai hartaz ari naiz. Zenbatek egin zuen gure aitonak bezala, familia utzi eta Francoren kontra borrokatzea joan? Askok. Gure familiaren historia Euskal

Herriko familia askorena ere bada. Harro nago gure familiak hartu zuen jarraz. Familiako zenbait kidek historiaren gertaera garrantzitsu horiek barrutik bizi izan zituzten, ez ziren egon aparte begira. Eta, gainera, alde jakin batean egin zuten. Eta ni hortik nator.

Pozik zaude egin duzun lanaz, eta liburuaz...

Oso pozik. Oraindik ere, tartean behin, irekitzen dut liburua han edo hemen, eta pasarteren bat irakurtzen dut. Historia politikak dira, entretenigarriak, erraz irakurtzekoak... Hori Asun Gari-kanori zor diot batez ere, aholku bat eman zidan-eta, oso ona: "Idazleak lan egin behar du, irakurleak egin beharrik ez izateko". Paragrafo bat hainbat aldiz irakurri behar izatea ez da seinale ona: edo gaia bera da zaila, edo bada korapiloa. Oso aholku ona Asunena. Erraz eta aberats idatzi ezinik ez dago. Eta Benat Castorene kazetariak ere horixe esan zidan: "Edukiaz gain nola ez mireski euskararen kalitatea? Aberatsa eta argia batera, sinplea eta sofistikatu batera, herrikoa eta gu guzientzat ulergarria batera". Zenbait irakurlek, berriz, liburukoak gertaera gogorrak direla esan didate... Pentsatu, gerrau-

rreko kontuak-eta, baserrietako giroa-eta. Birraitonari gertatu zitzaiona-eta.

Horixe kontatu behar diguzu azkena, birraitonarena...

Amak kontatuta dakigu hori. Haren aitona Juan Tomas zen, Leitzako Maieta baserrira ezkondu zen. Alaba zaharrenekin. Amaren aita jaiotzean, ordea, hil egin zen andre hura. Orduan, hilda-koaren ahizparekin ezkondu zen Juan Tomas. Atera kontuak nola izango ziren han maitasun kontuak! Ahal zuenak ahal zuena! Lau ume izan zituzten, baina azkenekoa izan zuenean, bigarren andrea ere hil egin zitzaion gure birraitonari. Bitartean, baserrian bertako semea gel-ditu zen nagusi, eta gure birraitona bidali egin zuen Maietatik, bost umerekin, eta ez baserri, ez etxe, ez lan zuela. Eta bostak hartu eta Leitzako zenbait baserri eta etxetan banatu behar izan zituen, morroi. Birraitona bera ere morroi joan zen baserri batera. Aita harentzat zer izan behar zuen, familia guztia sakabanatuta, bera ere morroi. Baserriko bizimodua latza zen orduan. Lana, lana eta lana. Besterik da Txomin Agirre batek, adibidez, *Garoa*-n egin zigun baserriaren irudi hori. Baserria... latza! Bai lehen, eta bai orain!... ●



**Euskara neu naiz,
geu gara**

DURANGO
Garena eginez

Euskararen Eguneko
ekitaldia udaletxeko plazan.
Abenduak 3, 11:30ean



Iritziak

Enpresa handien zerga minimoa



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Aurreko hamarkadan Amazonek ordaindu zuen zerga tasa efektiboa %13 izan zen. 2020 urtean Amerikako Estatu Batuetako 55 enpresa handienek ez zuten zergarik ordaindu. Espainiako Estatuan mila miloi euro baino gehiago fakturatu zuten enpresen mozkinaren gaineko tasa efektiboa 4,57% izan zen 2019an Espainiako Ogasunaren arabera. Urte horretan bertan Euskadiko 22 enpresa handienek mozkinen %7,7 ordaindu zuten zerga gisa, eta horietako zazpik ez zuten ekarpenik egin. Eurostatek dio azken 25 urtetan Europako Batasunean elkarleen gaineko zerga tasa nominala %35tik %21,5era jaitsi dela batez beste. Munduko eta bertako politiken azken hamarkadetakoa joera enpresen zerga ekarpena –nominala eta efektiboa– murriztearen aldekoa izan da, lehiakortasun printzipioaren izenean.

Pandemiaren testuinguruan eta AE-Betako Biden presidentearen ekimenak bultzatuta zerga politika hori zalantzan jartzen hasi da, bere zentzugabekeria inplizituki onartuta. Munduko zerga sistemaren bilakaeran mugarri bat ezarri zuen pasa den hilean LGEEak (Lankidetza eta Garapenerako Ekonomi Elkartea, OECD). Mendebaldeko herri aberatsen elkarte honek munduko Barne Produktu Gordinaren %90 ordezkatzeko duten 136 herrialdeen konpromisoa lortu zuen el-

Printzipioz mundu mailako zerga politikaren joera aldatzeko asmoa zuen neurriak praktikan itxurakeriatik du gehiago

karte handien zerga ihesaren aurka egiteko, azken ordura arte zalantzan izan ziren Irlanda, Estonia eta Hungaria barne hartuta.

Jakina da, 2023 urtetik aitzina urtean 750 miloi dolar baino gehiago fakturatzeko duten enpresa transnazionalen mozkinen gaineko %15eko tasa ezartzea izan zela bertako neurri nagusia. LGEEren esanetan, erabaki honek munduko ehun enpresa erraldoienetatik jasotako 125 mila miloi dolar mundu osoko herrialdeei birbanatzeko aukera irekiko du. Bestalde, aurrerantzean enpresa hauek beren jarduera ekonomikoa garatzen duten herrialdeetan ordainduko dituzte zergak (egoitza duten herrialdeaz gain), gaur egun zerga hoba-

riak aprobetxatzeko abantailak dituzten herrialdeetan mozkinak ezartzeko triki-mailua alboratuta.


Teorian aurrerapen esanguratsua da emandako urratsa, baina xehetasunetan sartuta balorazioa bestelakoa da. Bigarren irizpidearen aplikazioa, jarduera ekonomikoa duten herrialdeetako zergapetzea alegia, 100 enpresa handienei egokituko zaie bakarrik. Gainera, merkataritza digitalaren gainean herrialde bakoitzak ezarriak dituen zergak bertan behera uztea eskatzen da. Gauzak horrela, herrialde txiroenek lehen baino diru sarrera eskasagoak izango dituzte.

Bestalde, %15eko tasa nominal minimoa urria da eta, areago, banaketaren formula kontuan hartuta, enpresek egoitza duten herrialdeak dira berreskuratutako sarrera gehienak jasoko dituztenak; gainerako herrialdeak eta, batez ere, garapen bidean daudenak baztertuta. G7ko herrialdeek –munduko biztanleriaren %10 dutenak– etorkizuneko sarrera hauen %60 eskuratuko lukete, Zerga Justizia Sarearen estimazioak onztat hartuta. Printzipioz mundu mailako zerga politikaren joera aldatzeko asmoa zuen neurriak praktikan itxurakeriatik du gehiago. Hegoaldeko herrialde batzuk ez dute akordioa sinatu, egoerak okerragora egiteko beldur. Munduko zerga politika bidezkoagoa gauzatzeko aukera galdu da oraingoan ere. ●

Zentralismoaz eta multikulturalismoaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Luaz pentsatu da giza harremanak sistematikoki aztertzerakoan atomoen irudiaren bidez pentsatu behar zirela, erran nahi baitu zentro eta periferiarekin. Eskema teoriko hori arrunt eraginkorra izan da (eta bada ere oraino) batez ere botere harremanak ulertzeko jendartean. Adibidez, ikerketa soziologiko batek erakuts dezake hiri erdiguneetan kontzentratzen direla indar sozio-, ekonomiko-, politiko-kulturalak, eta inguruetan, frantsesez *banlieue* deitzen diren horietan, bazterturik daudela klase sozial apalenekoak, immigratuak, ahal gabetuak. Beste adibide bat emateke, froga daiteke literaturaren sisteman zentroan daudela obra eredugarriak, irakurlegoak, erakundeek edo merkatuak kanonizatuak, eta periferian bada goela bigarren mailako literatura bat. Espainia edo Frantzia bezalako kultur eremu nagusietan, atomo literarioaren nukleoa identifika daiteke, eta euskal literatura bazterreko literatura erregionalistan sailkatu, elektroiz edeusa balitz bezala. Eta euskal literaturaren baitan berdin koka daiteke bizi literarioaren zentroa Gipuzkoako aldean, autore eta kritikari ospetsuren inguruan, Iparraldeko ekoizpena bazterreratua ikusiz.

Zentro-periferia kontzeptuen bidez pentsatzeak badu alde txarrik: modu hierarkikoan aztertzen ditu giza errealitateak, eta eragileak bultzatzen ditu beren egitateak menperatzaile-menderatu harreman moten arabera gauzatzea, giza harreman oro botere edo borroka harremana bailitzan. Bizkitartean, zentro-periferia ideiek badute alde onik ere bai, bereziki kultur eremuan: “zentro” bat definituz, eredu bat zehazten dute, baikor eta bultzatzaile izan daitekeena. Ezen, nolako itxura zukeen konparazio euskal literaturak eredu sendorik ez bazuen eduki, gureari hedapen unibertuala eman diona?

Beste eskema teoriko baten bidez uler daitezke haatik jendartearen baitako harat-honatak, kontutan hartuz mundu globalizatuan sartuak gaudela denok: hau da, pentsatzea zentrorik ez dela gehiago, edo ez dela hain esanguratsu zentroak identifikatzea, azken finean periferiak baizik ez direlako gelditzen mugarik gabeko mundialitate honetan. Hemen, eta batez ere kultur alorrari dagokionez, Edouard Glissant martinikarraren filosofiari egiten diot erreferentzia: hark dio zentralizazioaren garaia bukatua dela eta

artxipelagoz osatua dela mundu berria. Gertatzen dena da zentrorik ez izanez gehiago, ustekabeko elkarreraginak gertatzen direla kulturen artean: hizkuntzak nahasten dira, arte ereduak ere bai. Glissantek “kreolizazioa” deitzen du fenomeno hori, eta bere ustez ongi hartzekoa da, kulturak iraunarazten dituelako bestelakatzu.

Zentrorik gabeko mundua biziki erakargarria izan daiteke: eredu akademikorik ez, askatasun osoa ezberdintasun eta nahasketa guziak aldarrikatzeko, muga guzietatik harat. *Banlieue* handia baizik ez daiteke mundua. Baina nahaskeriaz nahaskeria, ez ote ginateke itoko multikulturalismo artifizialean, gure benetako ezberdintasun (edo nortasun) aberasgarriaren kaltean? Nahaskeriak ez ote gintuzke uniformizazio hits batera eramaneen, mundializazio basenaren onetan? Arrisku hori gogoan, eusko zentratuak egon beharko genuke, lehenagoko eskema teorikora itzuliz...

Blaise Pascalek *Gogoetak* haietan zioen ildotik, zentroan ala zirkunferentzian murgildu nahi dugunez, hara nolako galdera zaila egin beharra diogun gure buruari. ●

Hustutako lurraldeetan erein



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Hustutako lurralde kontzeptua gero eta gehiago entzuten da han eta hemen, eta niri bereziki osatua iruditu zait Carlos Taibo pentsalari anarkistaren ikuspegia *Iberia vaciada. Desoblación, decrecimiento, colapso* liburuan (Los libros de la catarata, 2021). Despopulazio arazo estrukturalak eta desperekotasun sozioekonomikoak gurutzatzen diren lurraldeak Iberian zein diren definitzen du. Berehala, eta eskertzekoa da, egoerari aurre egiteko proposamenak egiten ditu, desazkundetik kolapsoari aurre egiteko ikuspegiarekin.

Hustutako Iberiaren marjinetan, Euskal Herriko landa-gune menditsuetan ditugu hustutako lurraldeak, arazoa bereziki larria delarik Pirinioetan. Udalbiltzak arazoaren ikerketa eta lanketa egin du *Hauspotu* proiektuaren bitartez (www.udalbiltza.eus/eu/proiektuak/hauspotu), eta Olatukoopeko lankideekin batera proiektugintza aktibatzeke proposamenekin parte hartzeko aukera ederra izan dut. Hala ere, Euskal Herriko ikuspegi batetik, arazoa oso gai periferiko bezala lantzen dugula uste dut, eta lurralde kohesioaren ikuspegitik lehentasunezkoa bihurtu behar genuke. Horretarako, gaitasunez eta baliabidez hustutako lurralde desindustrializatuen egoerare-

kin ikuspegiak lotzea proposatzen dut, lurralde hauetan bizi garen biztanleak batzen gaituena bizitzarako baliabide falta eta garapen ekonomikorako estrategia subordinatuak baitira.

Krisi klimatiko eta sozialak egoera okertuko du hustutako lurraldeetan; datorrenari aurea hartu eta 'etorgintza' pixka bat aplikatuko bagenio? Horretarako ezinbestekoa dugu gure lurraldeetan lan eta bizi ahal izateko ditugun beharrak kolektiboki identifikatzea, eta hauei burujabetza estrategikoen lanketarekin erantzutea: elikadura, etxebizitza, zaintza, kultura, osasuna edo mugikortasuna denontzat eskuragarri egingo dituzten tokiko balio kateak eraikitzea, existitzen diren proiektuak indartuz eta ekonomia eraldatzaileko ekimen berriei osatuz.

Gaitasunak, ikuspegiak eta proiektuak saretzen ari gara, subjektu eraldatzaileak eraikitzen, tokiko ekosistema kooperatiboak eta herri kooperatibak sortzen, despopulazioa eta desindustrializazioak hustutako lurraldeen arteko elkartasuna eraldaketarako agendan kokatzen. Bete ditzagun gure lurraldeak bizitzarako beharrezko ditugun baliabideekin, jabetza eta ezagutza komunak landuz, proiektu eraldatzaileak ereinez. ●

Zortzi erailketa politiko



**ITZIAR BARDAJI
IRAKASLEA**

Mugak bitan banatzen du Euskal Herria, Europako estatu inperialistek zabaldutako zauri bat. Inperialismo horrek eragiten du pertsona ugari bizitza arriskatzea hegoalde globaletik honat etortzeko. Gure muga ere tranpa bihurtu da, non migrazioa – logika kolonialari desobedientzia – gogor zigoritzen den. Zortzi heriotza zigor aurten.

Gu, euskaldun natibo Zuriak, arrazismorik gabe azaldu ezin den kapitalismoan murgilduta. 500 urteko kolonialismoak eskainitako pribilegioez jantziak, bake soziala erosteko gastatzen den

mozkinen zati bat jasotzen dugu. Geurea da muga eta mugak sortzen duen mina.

Asko kostatzen ari zaigu heriotza horien aurrean kalera ateratzea. Erantzun masiboa ematea. Pribilegioak galtzeko beldur gara.

Planetako aberastasuna agortzen eta kontzentratzen darrai, pobre direnen eta izango direnen arteko lehiak pobre izango ez direnen etorkizunari egiten dio mesede. Eta zer gerta liteke benetan Europako herritarrok, desjabetuok, erresistentzia honi, migrazioari, lagunduko bagenio? ●

Euskaraz jardutea periferikoa da



ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI
EUSKARA IRAKASLEA

Bilboko Podemoseko kide batek, euskal identitatearen aldarria “supremacismoarekin” lotu zuen, burgesiarekin, talde pribilegiatua garela, alegia. Eta pribilegiatu garen aldetik, mehatxutzat ikusten omen ditugu, emakumeen ahalduntzea, etorkinek dakarten hizkuntza aniztasuna edota askatasun sexuala. Jakina, munduko herritar horrek (ez txiroa, ez etorkina, ez emakumea eta binarioa) ez du arazorik bere identitatearekin. Ez du bizipen negatiborik egunerokoan berak ohi duen hizkuntzan aritzeko. Baina euskaldunon arazoak ez daude identitateari lotuta, jarduteari lotuta baizik. Hau da, arazoak euskaldun moduan jokatu nahi dugunean sortzen zaizkigu, bizipenei lotuta. Horretan berdintzen gara gu periferiako talde edo kolektiboekin.

Emakumeek, adibidez, edozein enpresatan lan egiteko aukera dute. Arazoa sortzen da gizonezkoen moduan jokatzeko eskubidea aldarrikatzen dutenean, gizonezkoek burutzen dituzten postu eta baldintzetan aritu nahi dutenean.

Arazoak euskaldun moduan jokatu nahi dugunean sortzen zaizkigu, bizipenei lotuta. Horretan berdintzen gara gu periferiako talde edo kolektiboekin

Pertsona ez binarioek ezkontzeko eskubidea eskuratu dute, baina oraindik ere askori gogorra egiten zaie familiaren edo lagunaren aurrean diren modukoak agertzea. Eta leku askotan arriskutsua izan daiteke bikoteari muxu eman edo eskutik helduta ibiltzea. Bizipenak.

Pertsona transexualek onartuta dituzte izen aldaketa edota genitalen ebakuntza. Arazoa dute gizartean ezarritako arau hegemonikoez gaindi, diren moduan libre agertu eta horrela jokatu nahi dutenean. Ez dira gutxi pasatu

behar dituzten egoerak, medikuarenean, eskolan, lantokian, aisialdian...

Euskaldunok eskubidea dugu administrazioarekin euskaraz aritzeko, baina mozal legera ezartzerainokoak paira ditzakegu poliziari euskaraz artatzeko eskatuz gero. Edozein enpresatan edo administrazioan lan egiteko eskubidea dugu, eta gure erabiltzaile edo bezero batekin euskaraz aritu beharra dagoe-nean, hortxe gaude gu horretarako. Arazoak sortzen dira, ordea, nagusiekin edo departamentuko bilera batean euskaraz aritu nahi dugunean. Aukera dugu kultura kontsumitzeko, baina zinemen karteldegian pelikulen %1 baino ez dugu topatzen. Inguru askotan lagun-taldean, gaztelaniaz hitz egiteko arau hegemonikoaren aurrean “*vas de guay*” entzun behar izatea ere ez da erraza izan behar.

Izan ere, hegemonikoa dena ez da euskaraz bizitzea, gaztelaniaz baizik. Baina periferiko izate hori errebelde izateko pribilegio moduan baliatuko bagenu, sinergiak bilatuko bagenu... Etorkinen hizkuntzak balioan jarriko bagenu... Garai bateko indarra berreskuratzeko urratsak emango genituzke euskalgintzan. ●



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia-aren parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrial

Ihinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com



Bilbao

Abenduak 3



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

*Euskara omentzeko eguna,
eta urte osoa
euskaraz gozatzeko*

EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA
bilbaeuskaraz.bilbao.eus

Mitoak, isildutakoak eta desirak

Adineko emakumeen gorputzaz eta sexualitateaz tertulian

Gorputzak eta sexualitateak elkar harilkatzen diren mataza konplexua osatzen dute; pertsona adina harimutur izan ditzake, eta bizipen adina korapilo. Zer esanik ez 58 eta 77 urte arteko emakumeen ahotsek ematen badigute testigantza. Hala bildu ditugu mahaiaren bueltan lau emakume, ingurukoekin hitz egiten ez dutena plazaratzeko, baina batez ere, lehen aldi bati mugarrira jartzeko.

 MIREN OSA GALDONA  SHU OTERO

Urduri, tentuz eta gogotsu iritsi dira gaurko protagonistak kazetariarekin duten hitzordura. Laurek onartu dute proposamenari uste baino azkarrago eman zietela baiezkoa, “arrapaladan”, eta ondorengo egunetan pentsatzen aritu zirela: “Zer izango dut ba nik hortaz hitz egiteko?”, galdetu zieten banan-banan euren buruei. Badute, baina, zer aletu gaiaren inguruan. Josune, Arantxa, Itziar eta Nekane dira. Asmatutako izenak jartzeko eskatu dute laurek, oraindik ere halako gaiek “morboa” eta “txu-txu-mutxua” baino ez dutela sortzen argudiatuta. 58, 68, 77 eta 68 urte

dituzte, hurrenez hurren, eta herri berean bizi dira. Elkar ezagutzen dute eta poza eman die gaia inguru horretan lantzeak, apenas izaten baitute aukerarik inguruko senideekin edo lagunekin lasai hitz egiteko. “Nik lortu dut lagun batzuekin konfiantzazko ingurua sortzea. Amarekin, aldiz, ez nuen inoiz lortu, beste garai batzuk ziren, eta orain alabarekin ere, saiatu arren, sentitu izan dut astuna naizela eta ez zaidala tokatzen berarekin sexualitateaz hitz egitea”, dio Josunek. Bat dator Nekane, eta, oro har, gizartean sexualitateaz hitz egiteko “halako erreparo bat” dagoela aipatu du, baita gaur egun





ere. Baietz dio Itziarrek, elkarriketok segun eta norekin hasi "prostitutatzat" jo zaitzaketela adieraziz. Arantxak ere, garaia gatik nahiz berari egokitu zaizkion bizipenak direla medio, inoiz ez du konplize egokirik topatu barruak hustutzeko. "Hitz egin izan dudana beti broma giroan izan da. Adineko beste emakumeen oso laguna ez bazara, oso zaila da halako gaiak mahai gainera ateratzea".

"Garai hartan dena bekatua zen". Hala dio Nekanek gaztaroari erreferentzia eginez. Francoren diktadurak, erlijio katolikoaren inposaketak eta gizartearen begirada hertsia asko mugatu zien gorputzarekin izandako lehen kontaktua, bai masturbaziori dagokionez, baita hilekoaz hitz egiteko orduan ere. Josunek ondo gogoan du nola amak behin eta berriro errepikatzen zion masturbatzea eta "halakoak" ez zirela bera bezalako neskatoari zegozkion gaiak, "txerrikeriak" baizik. Euren etxeetan ere erantzuna bera izaten zela diote gainontzeko hirurek. Itziarrek, aldiz, 13 urterekin bekatuaren ziriari buelta ematea lortu zuen eta masturbatzen hasi zen: "Hau eginda ez diot inori kalterik egiten, orduan ezin du bekatua izan!, esaten nion nire buruari. Hala ere, beti edukitzen nuen kezka eta beldurra. Jazarpena izugarria zen eta nahiz eta nik nire buruari minik ematen ez niola ikusi, ez nintzen erabat lasai geratzen". Nekanek barne borroka asko izan zituen garaiotan; masturbatzea bekatua zelakoan apaizarengana konfesatzera joan eta handik atera bezain pronto berriro eskua hankartera eramateko gogoia izaten zuen: "Nire buruari esaten nion: hau da panorama! konfesatzetik atera eta berriro bekatu egiteko prest nago". Mutil-laguna izanda ere, ez ditu samur oroitzen urteok, ezkutu eta gezurretan aritu behar izaten baitzuen guraso eta ingurukoekin.





HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntza aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupery


orkli



Hilekoarekin, nahi baino harreman kaskarragoa izan zutela diote, Arantxak batez ere. “Inork ez zidan azaldu zer zen hura. Eskolatik etxera joan nintzen zer gertatzen ari zitzaidan jakin gabe”. Izeko batekin bizi zen orduan eta hark ere ez zuen asmatu egoera hobetzen, isilik geratu baitzen odol isuriaz izututa zegoen nerabearen aurrean: “Hiru egun igaro nituen ohean negarrez, traumak jota”. Gerora iritsi zitzaizkion hilekoa gauza “normala” denaren mezuak. Etxekoak elizkoiak izateak eta lagunekin hilekoaz sekula hitz egin ez izanak eragin zuzena eduki zutelakoan da.

“

Oso ezberdina da gizonezkoak feminismoan mentalizatuta baldin badaude edo ez. Sexu harremanak parekideagoak dira”

Itziar

BABESIK EZEAN ASKATASUNIK EZ

Behin nerabezaroa atzean utzita ere, egoera ez zitzaien asko aldatu mahai-kideei. Itziar Bilbon bizi zen unibertsi-tateko ikasketak egin bitartean. Bertan “arau eta marko guztiak puskatu” zituela dio, Frantziako 1968ko maiatzak politikoki eta sexualki iraultza eragin bai-

tzuen gizartean. “Tabu guztiak hautsi genituen”. Askapen sexuala lortu arren, beldurrak gorputzean jarraitzen zuela dio, antisorgailurik gabe “ezertaz gozatzeko” aukerarik ez baitzegoen. Lagun baten bidez lortu zuen ginekologoarenean hitzordua, eta harengana joan zen mutil-lagunarekin, ikasten ari zirela-eta ezkondu ezin zirenez, bitarte horretarako pastillak emango zizkieten erre-gutzerara. Lortu zituzten, baina ez zioten mesederik egiten sabelean eta utzi egin behar izan zituen.

Nekane ere ez du esperientzia ona izan antisorgailuekin. 24 urterekin ezkondu zen, bi ume izan zituen, eta bigarrenaren ostean hasi zen medikatzen. Desirarik gabe gelditzen zela dio, larrua jotzeko gogorik gabe. Horra paradoxa: “Antisorgailuak hartu haurdun ez geratzeko, baina gogorik ez. Hartzen ez banituen arriskua hor zegoen, eta, noski, beldurra”. Halaber, sexurako gogoia eta desira bikotekidearen edo unean uneko lagunaren arabera ere badela dio, eta bat datoz gainontzekoak. Elkar ezagutzea, beste-ari zer gustatzen zaion jakitea eta elkar komunikatzea oinarritzat jotzen dute: “Ez da zer egiten duzun, baizik eta norekin egiten duzun”, gehitu du Nekane. Hamar urtez mutil-laguna izan zuen Arantxak, baina ez zuen orgasmoaren berri izan lehendabizikoz emakume batekin oheratu zen arte: “Mundu berri bat zabaldu zitzaidan. Mutil batekin egon nintzen hala toka-tzen zelako. Konturatu nintzen arte nik mutilekin jai nuela!”. Lehenengo aldi hartan ez ezik, aurrerago edukitako harremanetan ere oso ondo pasa izan duela dio, eta bere nahiak aintzat hartu izan dituztenaren sentsazioa du.

Josune eta Nekane gizonezkoekin baino ez dira oheratu; emakume ba-

3. FINALAURREKOA

LARRABETZU

Ander Elortegi Garatea, Eneko Abasolo Txabarri, Jone Uria Albizuri, Julen Arzanegi Erezuma, Nerea Ibarzabal Salegi eta Txaber Altube Sarrionandia.

www.bertsosale.eus/bizkaikotxapelketa

www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI

TXAPELKETA

2021

Abenduaren 4an, zapatua, 17:00etan, frontoian

tekin esperientzia bat izan zuen Itziarrek, “oso berezia” eta “ederra” bere hitzetan, baina gainontzean gizonezkoak izan ditu maitale. Josuneri lagun batek esan zion gizonezkoek baino ezin zituztela orgasmoak eduki. Ideia zorua dirudi, baina uste orokortua zela baieztatu dute Nekanek eta Itziarrek. Azken honen dio mito “izugarria” dagoela emakumezkoen orgasmoaren inguruan, eta ez lukeela denak horra bideratuta egon behar: “Orgasmoa bai, noski baietz! Noski gai garestiaren plazer izugarria izateko, baina badirudi beti iritsi behar zarela, eta ez da horrela! Hori gabe ere ederki pasa daiteke eta plazer izugarria sentitu dezakezu”. Hori bai, argi du bide horretarako gakoa zein den: “Buru askatuta izan behar duzu, beldurrik gabe eta bekatu egiten ari zarela sentitu gabe!”.

Jasan dute botere harremanik gizonezkoekin izandako harremanetan? Galdera bota ahala heldu dio amuari Josunek: “Gizonekin erne egon behar zara, egia da. Sexuan nabaritzen da nolakoak garen: azken finean sexua bidaia bat da, beste pertsona topatzeko bidaia, eta bide horretan ikusi egiten da bakoitza nolakoa den. Nire kasuan izan ditut esperientziak non bera berera baino ez zihoan, nire nahiak kontuan izan gabe. Aldiz, beste batzuetan, konektatu dut eta ederra izan da”. Itziarrek uste du oinarria ideologian dagoela: “Sexu harremanetan, oso ezberdina da gizonezkoak feminismoan mentalizatuta baldin badaude edo ez. Harremanak parekideagoak dira”. Maitasunak ere eragina duela diote laurek, ez dela gauza bera biak maiteminduta egotea edo une jakin batean ezagun batekin edo lagun batekin “ondo pasatzea”. Halaber, maitasunari ematen zaion garrantzia jasotako heziketaren

ondorioa dela uste dute; zaintza, maitasun erromantikoa eta etxeari lotutako ideiak txikitatuz barneratu izanarekin. Josunek ikasketek eskertu irauli zuen pentsamendua eta ulertu du ez garesti monogamoak, maitasuna eraikuntza kulturala dela. “Halako ideiek asko lagundu didate, baina, aldi berean, oso barneratuta izan dut emakume baten zatzat amodioa eta sexua lotuta daudela”.

“

Amarekin ez nuen inoiz lortu eta orain alabarekin ere, saiatu arren, sentitu izan dut astuna naizela eta ez zaidala tokatzen berarekin sexualitateaz hitz egitea”

Josune

GORPUTZAREN EZINBESTEKO ALDAKETA

Zaila da zahartzaroari hasiera data jartzeari; bakoitzak zahartzen hasi izanaren kontzientzia noiz edo non kokatuko lukeen jakitea. Ados daude lau elkarriketatuak menopausia une horietako bat izango litzatekeela. Nekanek oinaze emozionala sentitu zuen lehen hilabe-

teetan, “tristura moduko bat”, zerbait galdu izanaren hutsunea. “Jendeak dena ona balitz bezala saldu zidan, baina nik ez nuen horrela bizi: ordu arte beti prest egoten nintzen planak egiteko eta menopausiak gogoa kendu zidan”. Josunek bidelagun ona topatu zuen, trantsizioa arindu zion aditua. Hala ere, onartu du gorputzak aldaketa handia duen aldia dela, eta bere kasuan, maitasun istorio batean egokitu zitzaienez, sexurako grina tinko mantendu zuela. Baina zortzi urte geroago, gaur egun, bestela bizi du: “Aluko lehortasunak ere eragiten du. Mina sentitzen duzu eta horrek gogoa kentzen dizu”. Arantxak baietz dio buruarekin, berari ere nabarmen jaitsi zaiola libidoa, baina solaskide egokiren bat topatuz gero ederki moldatuko litzatekeela. Nekanek, berriz, gogor egiten dio bere buruari, eta tarteka, gogorik ez izan arren, “hau ezingo dut ba lotan utzi” esanez, gordeka masturbatzen da.

Gorputzaren bizitasun faltak ohartarazi zion Itziarri urteek ez dutela barikatzen: “60 urtetik aurrera sentitu nuen lehen baino gehiago nekaten nintzela eta agian ordu arteko bizitza frenetikoa- ren erritmoa jaitsi behar nuela”. Makina bat kontutan dabil hala ere, eta hara-hona ibiltzeak “bizirik” sentiarazten duela dio. Arantxak gehitu du askoren ustea dela behin 65 urte betetzean norbere buruari “deskantsua” eman behar zaiola, eta ordu arteko eginkizunak albo batera utzi behar direla: kontrara, lehen lerroan egotetik joko zelaia uztera pasatzeak gainbehera dakarrela diote laurek. Inguruko hainbat ezagun lagunekin kafea hartzearekin edo etxean lasai egotearekin konformatzen dela dio Nekanek, baina ez dela euren kasua. “Gaur bezala hemen egoteak burua martxan izatea egiten du, eta hori gauza ederra da”. Pentsiodunen taldean dabilta, besteak beste.

ABENDUAK 3. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

***Hernani,
euskararekin bat***




Nekane 35 urte betetzear denbora bazihoakiola sentitu zuen, gaztaroaren eta zahartzaroaren arteko zubian zegoela: “Uste nuen ezin nuela gaztaroa askoz gehiago luzatu, bazihoan aldi bat zela”. Behin ideia barneratuta, hartutako erabakiekin konforme egoten ikasi duela dio, unean unekoa baloratzen jakin duela. Funtsean, bere buruarekin gustura sentitu nahi du hemendik urte batzuetara balantzea egiteko orduan. “65 urtetik gora ez dut uste denbora galtzeko gaudenik”. Gainontzekoek ez bezala, minarekin lotu du zahartzaroa Josunek. Hezurretako mina sentitzen du eta adinarekin lotura izan dezakeen arren, beste faktore batzuek ere zerkusia izango dutela dio, “artifiziala” iruditzen zaio data zehatza jartzea.

BIZITAKOA ETA DATORRENA

Haatik, urteek lasaitasuna eta onarpena ere eman diete, kendu adina ematen baitu denborak. “Lotsagabeagoak” bilakatu izana posible dela dio Nekane, argiago izaten baitu pertsonak nor izan nahi duen aldamenean, eta arinago

esaten baitira pentsatzen direnak. Espektatibekin lotu du ideia Josunek, gazetako ametsak lausotzen joaten baitira zahartu ahala. “Onartzen duzu bizitza ez dela zuk imajinatzen zenuena, baidizik errealtateak erakusten dizuna”. Arrazoi beragatik frustazioa kudeatzen ikastearen beharra azpimarratu dute, iraganean pentsatutako hainbat gauza “tontakeriak” zirela onartzea, eta merezi ez zutela konturatzea. “Ereduak eta erreferenteak ere aldatu egiten zaizkizu. Ohartzen zara askotan espetxeak genituela buruan eta hori ez dela bizitzeko modurik egokiena”. Nortasuna aipatu du Itziarrek eta hein handi batean feminismoari zor dizkiola bidean ikasitakoak: “Francoren garaiak ziren, politikan nenbilen, mutilen munduan, eta normalean emakume bakarra izaten nintzen. Emakumeak ahulak ikusten nituen. Gero konturatu nintzen matxista nintzela eta feminismoan barneratu nintzenean bizitza guztia hantzez gora jarri zitzaidan: nortasuna, segurtasuna, konfiantza eta gauza asko eman dizkit”.

58, 68, 77 eta 68 urte dituzte, eta Nekane adierazi duen gisan, orain lehen baino gehiago pentsatzen dute heriotzaz. Beldurra diola onartu du Arantxak, orainaren eta geroaren arteko unea nolakoa izango ote den pentsatu ohi duela. Larritu egiten dela, baina bizi izandakoaz harro dagoenez lasaitasuna sentitzen duela berehala. Heriotzak baino bizi baldintzek kezkatzen ditu Itziar eta Nekane. Orain osasuntsu daude, eta eutanasiaren legeak itxaropena eman dien arren, kezka bizi dute zaintzaren auzia: “Egungo sistema erabat irauli behar da”. Etxean nahiko lituzkete pasa azken urteak, baina kontziente dira agian ezingo dela hala izan. Zahar egoitzetako langileen lan baldintzen alde egin dute eta etxeetan zaintza lanak egiten dituzten emakume migrazioen esklabotza amaitu behar dela diote. Haien ustez, zaintza eredu berriak sortzeko beharra premiazkoa da. Josunek jarri dio azken puntua arratsaldeari, gogoan edukitzeko moduko esaldiarekin: “Heriotzak bilakatzen du bizitza bizigarri”. ●



**Euskara.
Kultura.
Mundura.**

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

f t y in
www.etxepare.eus

ÁLEX ROMAGUERA

“ETAren indarkeria munizio politikoa izan da PP eta PSOErentzat”



Maixabel Lasa elkarriketatu ondoren bururatu zitzaion Álex Romaguera kazetariari Espainiako Estatuko ekintza armatuen inguruko liburu bat idaztea. Hamarkada bat geroago kaleratu du *Victimas en so de pau* (Biktimak bake asmoz). Katalunian errepresioaren ikurra den La Model espetxea aukeratu du ARGIArekin solastatzeko.

 SAIOA BALEZTENA  DANI CODINA

Non jaiotzen da *Victimas en so de pau* liburua?

Maixabel Lasa elkarriketatu nuen duela hamar urte. Ondoren, Robert Manrique, Hiperkorreko atentatuaren biktima ezagutu nuen eta konturatu nintzen, gaiak interpelatzen zidala. Iru-di erabat adiera bakarrekoa eta este-reotipatua zuen kolektiboa ezagutzen hasi nintzen, eratzen duten pertsonak bezain plurala zena. Gorrotoaren eta inkurioaren eskema baztertuz, Espainiako Estatuan ekintza armatuen biktimen familiak izateaz aparte, bake prozesuaren, berdintasunaren eta justiziaren alde agertu diren testigantzak interesatu zitzaizkidan.

Hamabortz testigantza jaso dituzu. Zaila izan da aukeraketa?

Hasieran, 50 edo 60 pertsonako zerrenda prestatu nuen. Azken aukeraketa egiteko irizpide nagusia izan da ekintza armatuen ondorioz familian norbait galdu dutenen testigantza jasotzea. Eta, horretarako, historiografiak mugatzen di-

tuen hiru testuingurutan oinarritu naiz; 1968tik 1975era, 1975etik 1982ra eta 1982tik gaur egunera bitarte. Horren barruan daude, matxinatuen ekintza armatuak, estatu aparatuak, espetxee-tako funtzionarioak, eskuin muturreko kideak, etab. Eta, erran bezala, polarizatu-tako kontaketatik ihesi, bertzearekiko errespetua lehenesten dituzten testigantzak jaso nahi izan ditut. Katēgoria moral eta etiko hori ezinbertzekoa iruditzen zait, 50 urte hauetan Espainiako Estatuan indarkeriak askotariko formak izan dituela erakusten duelako.

Zein da liburuaren hari eroalea?

Biktimek bakearekiko duten abiapuntua. Bakea ez da indarkeriarik gabeko gizartea izatea bakarrik: bakea, biktima denak errespetatuta sentitzeko, gizarte justuagoa eraikitzea ezinbertzekoa dela defendatzen dute denek. Irakeko gerraren kontra, errefuxiatuen politiken edo Mozal Legearen kontra agertu dira guztiak. Are gehiago, kasu anitzetan gehiegi politizatu gabeko familiak ziren, baina

indarkeriaren biktima izan direnean konpromisoa hartu dute gizartearekin. Eta, batez ere, “biktima” izatea onartzen dute, baina bizirik irten direnak izatea aldarrikatzen dute.

Indarkeria mota horiek Espainiako Estatuan utzitako biktimen zifrekin hasi duzu liburua, historian dauden hutsuneak azpimarratuz.

Bai, ETAren lehendabiziko ekintzatik gaur egun arte identifikatutako biktima guztiak zenbatuta, mila inguru daude. Gehienak ETak eragindakoak dira. Arazoa da kontaketa ofiziala ezagutzen dugula bakarrik eta ahanzten dugu, adibidez, Trantsizioan argitu gabeko 500 hildako daudela. Beraz, agerian gelditzen da estatu aparatuaren krimenak ezkutatuak izan direla, edo, gutienez, ez direla behar bezala epaitu.

Horren arabera, erran daiteke Trantsizioa ez zela saldu duten bezain “baketsu eta eredugarria” izan, ezta?

Ondorio nabarmenetakoa da Trantsizioak ahanztura eredua sortu zuela, gero, Nazio Batuetako errelatoreek, Amnistia Internazionalak eta Human Rights Watch-ek salatu dutena. Eta ahanztura egitura horrek ahalbidetu du disidenteen kontra estatuaren aparatuen in-punitatea mantentzea. Beraz, eredu-garria izatetik urrun, trantsiziorik ez zen izan. Eskubideen urraketa bermatu zuen ereduaren jarraipena izan zen Trantsizio demokratikoa.

Indarkeria politikoaren biktimen artean bi neurgailu daudela diozu.

Erabat. Lehen mailako eta bigarren edo hirugarren mailako biktimak daude. Ez da gauza bera estatuko goi kargua izatea, edo atxikipen politiko jakin bat duen pertsona. Alderdi politiko konstituzionalistetakoa kideak ziren biktimak aitortuak izan diren bitartean, ezarritako ordenari kontra egin diotenak gutxietsiak eta mespretxatuak izan dira. Bigarren edo hirugarren mailako biktima horiek, beraz, biktimizazio bikoitza

pairatu dute: familiako kide bat hiltzeaz gain, erakundearen gutxiespena ere jasan behar izan dute.

Erakunde publikoek lehen eta bigarren mailako biktimak sailkatzen badituzte, bakea bermatu ahal izango da?

Hori gero etorriko da. Gizarte zibilaren ekinbidea ezinbertzekoa da erakunde publikoak herritarren eskubideen alde lanean jarrazteko. Euskal Herrian, adibidez, Foro Soziala gakoa izan da, Lokarri ere bai, Aieteko Konferentzia posible egin zuelako, eta bertze hainbat. Gizarte zibilak mugiarazi ditu erakunde publikoak.

Robert Manrique bidaide izan duzu liburuan. Berak sarri salatu izan du ETaren biktimak interes politikoetarako erabiltzen dituztela. Sentsazio hori konpartitua da zure elkarrizketatuen artean?

Noski. Elkarrizketatuen artean badira hainbat ezaugarri konpartituak. Bate-

tik, bakoitzaren ibilbidea eta jarrera politikoa alde batera utzita, denek aldarrikatzen dute biktima guztientzako egia, justizia, konponketa, aitortpena eta berriz ez errepikatzeko bermea. Eta, bertzetik, denek ukatzen dute indarkeriaren erabilera. Beraz, bai, itxuraz antagonikoak diren profilen artean ohikoa da sentimendu hori.

Duela pare bat urte Rosa Lluch elkarrizketatu genuen ARGIAN. Berak aldarrikatzen zuen Ernest Lluch en alaba baino gehiago zela. Ane Muguruzak defendatzen duen ikuspuntu poliedrikoari helduta, ETako biktima baten alaba izateagatik ezagutzen dutenek, bere bizitza angelu bakarretik begiratzen baitute.

Hori ere ohikoa da: batzuek bizitza berregin nahi dute, bizitza markatu dien ekipaje biografikoarekin, noski, baina biktimizazioa kroniko bihurtzetik ihesi. Bertze kasu paradigmatico bat da Sara Buesarena, adibidez. Berak beti



argi izan du bizitza independentea egin nahi duela Fernando Buesaren alaba izatetik haratago. Biktimek paper humanizatzailea dutela argi dute, baina ezin direla gatazka politikoaren objektu izan.

Zein giro bizitu zenuen elkarriketetan?

Kontu handiz lantzeko gaia da, hagitz kirurgikoa da eta delikatu. Emozioen esparruan sartu beharra nuen eta, horretarako, Sara Bosch psikologoaren aholkularitza jaso nuen. Nire helburua zen elkarriketeten alderik morbosoen ez erortzea, eta berak elkarriketak kudeatzeko gakoak eman zizkidan.

Nola egituratu zenituen solasaldiak?

Delituaren inpaktuan, pertsonen mintik egindako erresilientzia prozesuan eta komunitateari balore positiboak emateko beharrian oinarritu nituen elkarriketak. Solasaldiak lau edo bortz ordukoak izan ziren, tartean bazkalduz. Ondoren, nik idatzitakoa irakurri eta zuzentzeko aukera eman nien biktimei.

Zein izan zen erantzuna?

Zuzenketaren bat egin zuten zatiren batean; batez ere, errailetatik ateratako adierazpenetan, hotzean ikusita, egoki ikusten ez zituztelako. Horretaz aparte, elkarriketatutako batzuek interesa izan zuten gainontzekoak zein izango ziren jakiteko. Baten batek, nolabaiteko enbarazua sentitu zuen.

Adibidez?

Guillem Agullóren familiak, baina gero ongi ikusi zuten. Familia guztiak bidelagun izan dira eta prozesu interesgarria izan da elkarrekiko akordioa.



Liburua idatzi ondotik, zein uste duzu dela gakoa biktima guztien erreparazioa bermatzeko?

Paradigma kulturalaren aldaketa ezinbertzekoa da, indibidualizazioa eta lehiakortasuna sustatzen dituen sistema politiko eta ekonomikoa aldatzeko. Indarkeria gatazkaren erantzuna da; beraz, gatazka hori eragiten duten arrazoiak konpontzen ez badira, indarkeria berriz berpiztuko da. Noski, denbora behar da, aldaketak sakona behar duelako izan.

Liburua erditu duzu, hain zuzen ere, Aieteko Adierazpenaren 10. urteurrenean. Zer deritzozu Arnaldo Otegi eta Arkaitz Rodriguezek egindako adierazpenez?

Bakea eraikitzeko positiboa iruditu zitzaidan, baina kontuan hartu beharra dago Europako kasu bakarra dela zeinetan, alde batek jardun armatua bukatu eta bertzearen oposizioa bere horretan mantendu den. Beraz, hagitz paradigmatikoa da: ETaren indarkeria munizio politikoa izan denez PP eta PSOerentzat, eurentzat bake prozesuak albiste txarra izaten jarraitzen du, errepresioa justifikatzeko arrazoirik gabe gelditzen direlako. Baina, gizarte zibilarengan konfiantza handiagoa daukat.


Bukatzeko, zein da liburuarekin egin duzun ikasketa prozesua?

Egia errateko, zalantza etiko-morala piztu dit, azken egunotan nire ingurukoekin konpartitzen ari naizena. Duela hamar urte Maixabel Lasarekin solastatu nintzenean berak erran zidan, zenbateraino egin zuten ongi gure gurasoek Carrero Blancoren hilketatik topa egin zutenean. Tira, nik bere biloba ezagutu dut eta nola erranen diot bere aitatzia hil zutenean ospatu nuela? Eztabaida hori gizarteak aurrez aurre egin behar du: indarkeria txarra bada, eta, ez badugu lehen eta bigarren mailako biktimarik nahi, ez litzateke egon beharko lehen eta bigarren mailako hilketarik, ez? Ala bai? Badago erraten duenik Carrero Blancoren hilketak frankismoaren bukaera eragin zuela. Ados, baina orduan erlatibizatzen ari gara. Batzuetan pentsatzen dut, Irak inbaditzeko Azoreetako Ituna sinatu aurretik José Maria Aznar Bagdadera eraman izan balute, eta hango giroa eta jendea ezagutu izan balitu, itzultzean ituna sinatuko zukeen? ●

Tinko
euskara elkarte

2021/2022 ikasturteko programazioa ikastetxeentzat

Filmen eskaera egiteko:
tinkoeuskara.eus 943 310 036



**Euskaraz
Zara,
euskaraz
gara.**

**Lezoko Udala
euskararekin
da!**

ARRAZAKERIA SALTOKIETAN


Erosketak egitea amesgaiztoa da emakume ijitoentzat

Kriminalizazio praktikak barra-barra erregistratu ditu AMUGE elkarteak Bizkaiko supermerkatu eta merkataritza-zentroetan egin duen ikerketa baten bidez. Egunero bizi dituzten umiliazio publikoen berri eman nahi izan dute, aurkitzen duten babesgabetasun juridiko eta soziala salatzeko.

 JUNE FERNÁNDEZ  AMUGE ELKARTEA

Imajina ezazu zure ahizparekin zoazela supermerkatuara. Sartu bezain pronto, mesfidantza begiradak eta txutxu-mutxuak sumatu dituzue. Segidan konturatu zarete langile bat duzuela atzetik jarraika, pasilloz pasillo. Perfumeen apalategietara heldu zaretenean, errefortzuak eskatu ditu megafonia bidez. Ondoren, urdaitegira jo duzuenean, urdaiazpikoa kendu dute erakusmahaitik. Hogei minutu baino ez daramazue dendan, baina langileak gero eta urduriago daude. “Hemen jarraitzen dute?”, esan dio bata besteari. Amesgaiztozko eszena hori eguneroko oia da emakume ijitoentzat, AMUGE elkarteak salatu duenez. Ikerketa antolatatu dute sistematikoa den kriminalizazioa argitaratu emateko.

Bizkaiko hamabost supermerkatu eta bost merkataritza-zentroetan bisitak antolatu dituzte urriaren 26 eta azaroaren 15a bitartean. *Testing* izeneko metodologia jarraituz, kopuru eta adin tarte bereko bi boluntario talde sartu dira aldi berean establezimendu bakoitzean: bat emakume ijitoz osatua eta bestea emakume zuriena. Behatzaile independenteak ere sartu dira haiekin, lekuko moral gisa. Produktuak naturaltasunez begiratu, probatu eta erosi dituzte batzuek zein besteek. Bisitatutako hogeia establezimendutik hamaseitan ijitoen aurkako tratu diskriminatzailea egiaztatu dute, hau da, laginaren %80a. Are gehiago, bisita-egun guztietan eta parte hartu duten hamalau ijitoen aurkako gorabeherak erregistratu dituz-



Erreportaje honetako argazkiak ezkutuan aterata daude. Horietan ikusten da nola segurtasun langileak ijitoen ondoan dauden haiek kontrolatzeko.

te, audioz eta bideoz. Jazarpena izan da gehien errepikatu den kriminalizazio-praktika, baina baita ere ahozko akusazioak, txutxu-mutxuak eta iruzkin iraingarriak, urduritasun adierazpenak eta errefortzu eskaerak. Partaideak arropadenda ezagun bateko aldageletara sartu zirenean, dendariak boluntario ijitoaren poltsa baino ez zuen eskanerretik pasa.

Lekuko moral gisa hartu du parte Goizalde Landabaso kazetariak *testing*-ean. Bilboko supermerkatu batean honako oharrak hartu ditu: "Hasieratik izan zuten langile bat atzetik. Emakume ijitoak nora, langilea hara. Une batean, langile batek beste batzuei esan zien buelta bat eman zezatela, ea zerbait falta zen ikusteko".

Boluntario zuriek, ordea, lasai asko egin ahal izan zituzten erosketak dena guztietan. Are gehiago, batek baino gehiagok adierazi du ezikusia sentitu dela, langile guztien arreta emakume ijitoengan jarrita zegoelako. Behatzaile bati zera esan zion kosmetika denda bateko saltzaileak, boluntario ijitoei begira: "Barkatu, ezin zaitut ondo artatu, bazterrak nahastera etorri dira". "Pribilegiatua, tratu-desberdintasuna agerian ikusi dudalako", idatzi zuen boluntario zuri batek supermerkatu batetik ateratzean, "Nola sentitu zara?" galderari erantzuteko orduan.

Ikerketan, bi egunetan hartu du parte AMUGEko bazkidea den Sheila Aguilarrrek eta ez du sorpresarik hartu jasotako tratuarekin. "Egunero bizi dugu. Txikitatik jazartzen gaituzte. Erosketak egitera joateak estresa eragiten digu. Horregatik nahiago dugu merkatu txikira baino ez joan, hor lasai eta libre ibili gaitzekee-

lako". Ohituta egoteak ez du esan nahi mingarria ez denik. *Testing*-ean "errealitatean" bizi duten amorrua, ezintasuna eta lotsa sentitu dutela adierazi dute boluntario ijitoek.

BABESGABETASUN JURIDIKOA

Diskriminazioa egiaztatzeko proba enpirikoa da *testing*-a, Amerikako Estatu Batuetako establezimendu publikoetan arraza-segregazio politikak agerian uzteko garatu zena, pasa den mendeko 50-60ko hamarkadetan. Funtsean, antzeko pertsona-taldeek jasotako tratua alderatzean datza, horien arteko alde bakarra aztertu nahi den diskriminazio ardatza delarik: generoa, arraza- edo etnia-jatorria, desgaitasuna, eta abar. Ordutik, ikerkuntza sozialean nahiz aktibismoan erabili izan da Europan ere.


Metodologia honetan oinarritutako salaketa publikoak eta judizialak egiten eskarmentu handia duen Frantziako SOS Racisme elkarteak 2011n Europako hainbat erakunderi proposatu zien, gau berean, parranda giroan, *testing*-a antolatzea. Hala, urte horretako martxoaren 4tik 5era bitartean, Bizkaiko SOS Arrazakeriak Bilboko Urkijo eta Mazarredoko tabernetara bisitak antolatu zituen: bikote zuri bat sartu zen taberna bakoitzera eta jarraian jatorri desberdinetako hiru bikote arrazializatu, denak gizonezkoak. Atezainen jokabidea diskriminatzailea izan zen bederatzi pubetatik zortzitan, bereziki bikote magrebtarrekin. Zenbait dantzalekutan, bikote arrazializatuak sarrera ukatu zieten, aitzakiak jarrita –esaterako, festa pribatu bat ospatzen ari zela–; beste batzuetan etorkinei baino ez zieten kobratu sarrera. Geroztik, Bizkai-

ko eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak metodologia horretaz baliatu dira higiezin agentzietan, diskoteketan eta interneteko lan eskaintzetan ematen den diskriminazioa argitara emateko.

2019ko urrian, Bilboko Zubiarte merkataritza-gunean gertatu zitzaiona publikoki salatu zuen AMUGE elkarteak: zinematik irten zirenean, hamahiru neska adin txikikok eta hiru hezitzailek bi segurtasun-zaindariren jazarpena pairatu zuten. Bizkaiko SOS Arrazakeriako kideek *testing* bat antolatzea iradoki zioten emakume ijitoen elkarteari, jokabide kriminalizatzaile hori orokortua dagoela gizarteratzeko.

Zubiarteko gertakariaren ondorioz ohartu zen AMUGEko lantaldea emakume ijitoek eguneroko diskriminazio mota horren aurrean bizi duten babesgabetasunaz. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako diskriminazioaren kontrako Eraberean sarera jo zutenean, halako salaketek ibilbide judizialik ez dutela erantzun zieten. Alegia, Espainiako Zigor Kodearen 510. artikulua (gorroto-delituak buruzkoak) ez dituela horrelako eguneroko egoerak aintzat hartzen. "Erreklamazio-orriak betetzea dugu tresna bakarra, baina ez du ezertarako balio", adierazi du AMUGEko arduraduna den Tamara Claveriak. Halaber, segurtasun-enpresari kexa idatzka bidali zieten, baina ez zuten erantzunik jaso.

Espazio publikoan arraza edo etnia profilaren arabera kontrolak egitea legez kanpoko dela ebatzi zuen Nazio Batuen Erakundeak, Rosalind Williams izeneko emakumearen auzian. Williamsek 1992an salatu zuen Valladoliden poliziak kalean identifikatu zuela soilik beltza iza-





teagatik eta hamazazpi urteko borroka judizialean Espainiako auzitegiek ez zuten onartu jokabide hori arrazista zela. Halere, kontrol arrazistak errotuta daude ez bakarrik polizien jardunean, baita ostalaritzan eta merkatal guneetan ere.

Claveriaren esanetan, *testing*-aren emaitzak zabalduz lortu nahi dutena da ijitoen kontrako eguneroko praktika horiek ekiditeko eta erreparatzeko neurri positiboak bultzatzea. Izan ere, arazoa ez da soilik langileek ijitoen kontrako aurreiritziak izan ditzaketela, baizik eta ijitoak espresuki zelatatzeke jarraibideak jasotzen dituztela. "Saltokietako eta segurtasun enpresetako langile eta arduran prestakuntza behar-beharrezkoa da, begirada antiarrazista izan dezaten", nabarmendu du. Halaber, pertsona zuriak kontzientziatu nahi ditu AMUGEK, ijitoen kontrako jazarpena ikusten dutenean, "Zerbait egingo zuen" pentsatu ordez, bidegabekeria identifikatu eta gure alde egin dezaten".

ESTEREOTIPOAREN ZAMA

Merkataritza sektorean emakume ijitoak bezero gisa barik, susmagarri gisa tratatzeko joeraren iturburua iruditeria kolektiboan oso errotuta dagoen arketipoa

da. "Eraikuntza historikoa dugu, interes ideologiko eta politikoei erantzun diotena. Miguel de Cervantes eta Victor Hugo bezalako sortzaileek mendeetan indartu dute lapurrak garen estereotipoa. Egin ez ditugun delituak guri leporatzea ijitoen aurkako politikak justifikatzeko estrategia izan da", azaldu du Claveriak.

Testing-ean argi geratu da dendariak disimulu barik zelatatu dituztela boluntario arrazializatuak, baita haiei buruzko komentario eta keinuak egin ere, batzuetan boluntario zurien konplizitatea bilatuz. "Haien argudioa izango da lapurtu duten emakume ijito askoren kasuak izan dituztela, baina zenbat pertsona zurik lapurtzen dute dendetan? Ezin dute jakin, herritar zuriak ez dituztelako kontrolatzen", erantzun du ekintzaileak.

Boluntario ijitoen testigantzek agerian utzi dute halako umiliazio publikoak estresa eragiten diela, haien autoestimua kaltetzen duela eta parte-hartze soziala mugatzen duela. Gaztetatik dakite ezin dutela bolatokira edo zinemara lasai joan, hobe dutela auzoan geratu. AMUGEko arduradunaren esanetan, eskolan, lan munduan edota osasun-sisteman ere bizi duten etengabeko aurrejuzguak aukera gutxi uzten diz-

kie: "Gure identitateari uko egitea, lagun zurien babespean ibiltzea edo jendarte zuriak eraiki duen estereotipoa barneratzea eta betetzea".

Leioako zentro komertzialera joan ziren Sheila eta Desi, *testing*-ean parte hartu duten ijito gazteenak. Hainbat kosmetika dendatan tentsio egoerak bizi ondoren, arropa denda ezagun batera sartu ziren. Behatzaile gisa joan den eta kronika hau sinatzen duen kazetariak entzun du saltzaile batek belarriko entzungailuaren bidez segurtasun langilea etor dadila eskatzen. Bitartean, beste hiru saltzaile deitu ditu eta txutxu-mutxuka hasi dira, bi neskei begira: "Baina zergatik zaude hain urduri?", "Nik ezin ditudalako kontrolatu", "Lasai egon, neska, ez da zure lana, laster etorriko dira". Segurtasuneko hiru langile gizonezko heldu dira; bat dendara sartu da eta beste biak atean geratu dira, emakume ijitoen zain. Sorpresa handia hartu dute boluntarioek emakume zuriz osatutako taldearekin bat egiten dutela ikustearakoan. Desik adierazi du desengainu handia hartu duela, bortizki diskriminatua izan delako. Biharamunean AMUGEko langileei kontatu die preso zegoela amets egin duela. ●

A 3 D

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3a, egunero!



ARGIRIAGA

Bizitzeko hobetu



Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

“ ”

Haur euskaldunak erdaldunekin nahastea nahi dugu, baina euskara ardatz

Mitxel Elortza

Elkarriketa honen abiaburua urriaren 31n ARGIA n argitaratutako erreportajea da: "Etetik euskara dakarten haurrak ikasgela berean ala sakabanatuta?". Mitxel Elortzaren (Gasteiz, 1988) hainbat esan jaso zituen artikulua. Elortzak, Arnas Dezagun taldearen bozeramaileak, azalpen zabalagoak eman nahi izan ditu honakoan. Arnas Dezagun ekimenak ikasgeletan haur euskaldunak ez sakabanatzeko eskatzen du.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Arnas Dezagun duzue taldea, haur euskaldunak gela berean biltzearen aldeko zaretela besterik ez dakigu...

Izan, Arnas Dezagun guraso euskaltza-lez osatutako talde bat da. Partaideok Euskal Herriko udalerrri erdaldunduetan bizi gara, eta gure haurrak D eremuan ikasten ari dira. Euskal hiztunak dira, gutxiengo dira ikasgelan, baina ikastetxe gehienetan, haiek elkarrekin jarri ordez bateko eta besteko geletan sakabanatzen dituzte. Haur erdaldunak tartean egonda euskaraz jardutea zaila da. Gure haur euskal hiztunei errotik ukatzen zaie euskaraz jarduteko aukera, D eremuan izanagatik ere! Ondorioa da gure haurrak zeharo erdalduntzen direla, oso denbora laburrean ere!, euskara bazter uzten dutela, bai eskolan, bai eskolatik kanpo. Arazo larri horri konponbide bat aurkitzeko premiak zenbait guraso elkartu gintuen Arnas Dezagunen.

Etetik euskara dakarten haurrak ez sakabanatzeko eskatzen duzue, oroz gain.

Arnas Dezagunek ez du haur erdaldunak eta haur euskaldunak banatzeko eskatzen, haur euskaldunak ez sakabanatzeko baizik. Alegia, ez dugu nahi "euskaldunen gelak" egotea, baizik eta euskaldunen masa kritiko nahikoa dagoela berma dadila, posible den kasuetan, behintzat. Eta, gutxienez gela batean, euskara izan dadila ikasle horien harreman-hizkuntza nagusia, eta eredu eta zubi gainerako geletako haurrentzat. Haur euskal hiztunak erdaldunekin batera egon daitezke ikasgelan, baina eurak sakabanatuta egon gabe. Ezinbestekoa deritzogu horrela jokatzeari, baldin eta inoiz euskara bihurtuko bada ikasgeletako zein ikastetxeko hizkuntza nagusia. Sakabanaketaren ondorioz, ikasle euskaldunek euskara baztertu eta

gaztelaniaz jardun beste biderik ez dute. Batetik, gaztelania ez erabiltzeak ekar diezazkiekeen integrazio arazoak belldurrez, eta bestetik, gainerako haurren presioen ondorioz. Euskararekin lotutako bizipen eta uste etsigarriak garatu ohi dituzte. Horrek kolokan jartzen du, gaurko erabilera ez ezik, biharko transmisioa ere. Presazkoa da egoera horri amaiera ematea.

Haur euskal hiztunak ez sakabanatzeak, haur erdaldunak abandonatu behar ditugula esan nahi du?

Gure nahia ikastetxeko haur guztiak euskalduntzea da. Ikasle euskaldunak elkartuta, arreta berezia eman beharko zaie etetik gaztelania dakarten haurrei. Batetik, euskaraz jarduteko ohitura –eta lotsa gabe, harrotasuna–, duten ikas-kide euskaldunen ezinbesteko eredua



eskainiko zaie; horri motor eta antena efektua esaten diote adituek. Bestetik, baliabideak eta laguntza berezitua bideratu beharko da haur erdaldunengan. Txikitan ezartzen diren hizkuntza harremanak gerora aldatzea zailagoa da, eta oso garrantzitsua da harremanak lehenbailehen euskaraz bideratzea; ahalik eta adin txikienetik. Eta hortxe daude aniztasuna eta inklusioa ere. Hor euskarak funtsezko rola izan behar luke, baina ez dauka. Gure proposamenak kontu horiei ere heldu nahi die, betiere euskara ardatz hartuta eta arnasguneen estigmatizazioari bidea itxita. Guk zera proposatzen dugu: ama-hizkuntza gaztelania –edota frantsesa, Ipar Euskal Herrian–, ez duten haurrak arnasgune funtzional horietan sartzea lehenestea. Gure ustez, era egokia izan daiteke ikasle horiek gure hizkuntzaren bidez integratzen laguntzeko.

Nola zehaztu nortzuk diren ume euskaldunak, hau da, euskal hiztunak?

Ikasle euskaldunak geletan banatzera-koan, ikastetxeetako arduradunek ez dute inolako zalantzarik izaten euskal

hiztunak nortzuk diren erabakitzeko. Dirudienez, familia barruko hizkuntza-praktikak izan dira orain arte banaketak egiteko erabilitako irizpidea: umeak euskara etxetik baldin badakar, sakabanatu. Gure ustez, irizpide berberak balio beharko luke ume euskaldunak taldekatzeko ere. Horrez gain, testuinguru erdaldun batetik datozen baina hala ere euskaraz egiteko gogoia edo joera erakusten duten umeak ere, euskaldunen multzoan sartu beharko lirake. Ikasge-la barruko behaketa zuzena tresna egokia izan daiteke sailkapen hori egiteko.

Zein oztopo izan dituzue Arnas Dezagunen orain arteko bidean? Kontrako iritzirik ere bada.

Ekimena plazaratu zenetik, kontrako iritziz batzuk entzun ditugu, bai, baina askoz gehiago izan dira jaso ditugun atxikimenduak eta babes esplizituak. Guztiarekin, kritikak zilegi bezain beharrezkoak dira, zintzoak eta eraikitzaileak diren neurrian, eta ekarpen interesgarriak jaso ditugu ikuspegi kritikoa agertu duten batzuek ere. Hala ere, oztoporik handiena ikastetxeen jarrerara itxia izan da. Dena dela, oraindik


orain, auziaz hitz egiteko gonbita jaso dugu Ikastolen Elkartetik. Baliteke auzia berbideratzeko eta bide onetik abiatzeko lehen urratsa izatea. Itxaropentsu joango gara bilerara.

Sostengurik izan duzue?

[Azaroaren 27an Arnas Dezagun manifestua aurkeztu zuten Bilbon. Orain arteko atxikimenduen zerrenda publiko egiteaz gain, herritar guztiei irekitako babes-kanpaina iragarri zuten]. Gure aldarrikapenak aldeko iritziz, elkartasun-adierazpen eta atxikimendu ugari eta askotarikoak bildu ditu. Ia 100 irakasleren babesa jaso dugu, eta dozenaka euskaltzale ezagunek ere bat egin dute gure ekimenarekin: soziolinguistikan adituak dira, edo kazetariak, artistak, kirolariak, musikariak, idazleak, bertsolariak... Guraso askoren sostengua eta esker ona ere heldu zaigu, erabat identifikatu baitira ekimenarekin, eta batzuek pena dute berandu jarri delako martxan, haien seme-alaben garaian ez zelako holarik plazaratu. Argi dago funtsezko gai bat jarri dugula mahai gainean, eta esan daiteke euskaldun askok sentitzen dutenarekin konektatu dugula.

Etetik euskara dakarten haurrak talde berean egokitzeaz ari gara. Hala ere, hori “gai delikatu” da.

Bai, zalantza gabe. Horregatik egin dugu haur euskaldunak ez sakanabatzeko eskaria, hain zuzen. Taldekatzeak arreta eta mimo handiz egin behar direlako, haur euskal hiztunen –eta beren familien–, hizkuntza-eskubideak zaintzeko eta haur etxetik erdaldunen ikasprozesua errazteko; horien familien mesedetan ere bai. Gure ustez, funtsezkoa da ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen iritzia kontuan hartzea. Horregatik eskatzen dugu auzi honen gaineko hausnarketa lasaia, objektiboa, eta manipulaziorik gabea. Eta, horregatik, ezer egin aurretik ere, jo genuen adituengana, gure proposamenaren gaineko iritziz kualifikatua jasotzearen. Eta berriro azpimarratuko dugu: haur euskaldunak ez sakabanatzea da eskatzen duguna, ez dugu eskatzen gainerakoengandik bereiztea. Haur euskaldunek haur erdaldunekin elkarreragitea eta nahastea nahi dugu, baina euskara ardatz, eta ez gaur egun gehienetan gertatzen den bezala, gaztelara hutsez. ●



AEBetako lehen emakumezko alkatea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Argonia (Kansas, AEB), 1887ko apirilaren 4a. Susanna M. Salter-ek (1860-1961) herri txiki horretako hauteskundeak irabazi zituen, botoen %60tik gora eskuratuta, eta, hala, AEBetako lehen emakumezko alkatea izan zen. Ordu batzuk lehenago inork gutxik espero zuen emaitza; Salterrek berak egun berean jakin zuen hautagaien artean zegoela.

Salter WCTUko (Neurritasunaren Aldeko Emakume Kristauen Batasuna) kidea zen eta, hortaz, emakumeen sufragioaren eta alkohola debekatzearen alde zegoen. Baina ez zuen bere burua hautagaitzat aurkeztu, aste batzuk lehenago emakumeek Kansaseko udal hauteskundeetan bozkatzeko –eta hautagai izateko– eskubidea lortu zuten arren; beste 32 urte beharko ziren eskubidea AEB osoan zabaltzeko. Emakumezkoek politikan parte hartzearen aurka zegoen gizon talde batek aurkeztu zuen Salterren hautagaitza, txantxetan. Salterrek ez zuen botorik lortuko eta, ondorioz, emakumeek, umilduta, kargu politikoetara aurkezteko gogoia galduko zuten.

Garai hartan zerrendak ez ziren hauteskunde goizera arte kaleratzen, eta



KANSAS HISTORICAL SOCIETY

orduan jakin zuten Susannak berak, WCTUk eta herriko alderdi errepublikarreko kideek, Salterren alde bozkatzeko aukera zutela. Errepublikarrek ordezkaritza bat bidali zuten Salterren etxera eta, Patricia Grimshaw historiariaren arabera, “irabaziz gero alkate izateko prest ote zegoen galdetu ziote-

nean, baiezkoa erantzun zuen. Salterren gogoia ikusita edo, beharbada, gizon talde hark hauteskunde prozesuaren zilegitasuna zalantzan jarri zuelako, emakumearen alde bozkatzeari erabaki zuten Argoniako errepublikarrek”. WCTUko kideek ere erabaki bera hartu zuten.

Urtebetez aritu zen Susanna Salter alkate lanetan, hurrengo hauteskundeetan ez aurkeztea erabaki baitzuen, eta dolar batego ordaina jaso zuen karguan jarduteagatik. Behin, *The New York Sun* egunkariak errepor-tari bat bidali zuen Argoniara. Kazetariak xehetasun osoz deskribatu zituen alkatearen soinekoa eta kapela, eta haren estilo begirunetsua goraipatu zuen. Horrez gain, Salter alkate trebe eta jantzia izan omen zen, biler-labur eta eraginkorrek egin zalea, aldrebeskeriarik onartzen ez zuena.

Horrenbestez, Susanna Salter urtebetez AEBetako lehen emakumezko alkatea izan zen, gizon batzuei txantxa oker atera zitzaielako. Eta 130 urte pasatxo eta gero, Kamala Harris 85 minutuz AEBetako lehen emakumezko jarduneko presidentea izan berri da, gizon bati kolonoskopia bat egin diotelako. ●



S. REICHERT

Mongoliar hiri galduaren bila

Genghis Khanek 1218an sortu zuen Karakorum hiria, mongolen inperioaren lehen hiriburua. Handik 40 bat urtera, 1260an Kublai Khanek hiriburua aldatu zuen, eta 1388an txinatarrek hartu eta suntsitu zuten hiria. Hiriaren hondakinak eraikuntzarako material gisa erabili

zituzten handik aurrera. Horregatik, ezer gutxi jakin dugu mongoliar hiriari buruz orain arte.

Orain, alemaniar eta mongoliar arkeologo talde batek, eskaneatze magnetikoa eta topografikoa erabiliz, hiri zaharraren mapa egitea lortu du, eta *Antiquity* aldizkarian argitaratu. ●

Flora eta fauna ere KM0

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sabanako jirafak, lehoiak, elefanteak... Ipar poloko hartz zu-riak... Asiako tximino saltariak... Horrelakoak topatzen ditugu Euskal Herriko haurrei kontatzen dizkiegun ipuinetan, erabiltzen dituzten jostai-luetan. Galtzen ari gara bertako animalien ezagutza. Nork kantatzen dio okilari? Arrabioari? Izokinari? Soro muxarrari? Etxeko txikienek jolasaren bidez animalia hauek modu natu-ralean barneratzeke aukera berri bat izango dute *Xapoketan* puzzlearekin.

100 piezako puzzle honetan ikus-ten ahal dira Euskal Herriko eko-sistema desberdinetan bizi diren animaliak. Tira, ekosistemak mugaz gaindikoak dira eta Euskal Herriko zazpi lurraldeak eta inguruak harra-patzen dituzten eremuetako bizidu-nak ezagutuko ditugu. Puzzlearekin batera, gainera, ekosistemen libu-ruxka dator kaxa barruan; puzzlean ikusitakoa osatu eta gaian sakontze-ko. Ekosistema bakoitzean ohikoak diren animaliak ageri dira irudietan, eta informazio gehigarria ere jaso-tzen du liburuxkak, eremu bakoitza-ren ezaugarriekin.

XAPOKETAN EGITASMOA

Ez da bertako flora eta fauna eza-gutzero emateko helburuz egin den lehen proiektua. Xapoketan egitas-moa jarri zuen abian ARGIAk 2019an eta karta-joko bat sortu zen lehe-nik. Aukera anitz eskaintzen zituen mahai-jokoak arrakasta izan zuen. Ez dute, ordea, produktu soil batean gelditu nahi. Egitasmo oso bat dago atzean eta beste pauso bat da puzz-lea. Iñaki Sanz-Azkue biologoa, Eñaut Aiartzaguenarra marrazkilaria eta Lore Erriondo pedagogoa dira proiektuan buru-belarri ibili diren hiru aurpe-giak. "Etxeko txikientzat, edota tal-dean, familian, aiton-amona bilobak jolasean aritzeko egokia da", diote.

Dibertitzeko uneetan sartu nahi du Xapoketan-ek, jolas bidez ikasi. Haur eta heldu. Umeen aitzakian makina bat animalia orain arte ezezagun ondoan ditugula jabetuko baikara denok ere.

Nolakoak dira Euskal Herriko baso, goi-larre, hareatza eta padura, itsaso eta itsaslabar, landa eremu eta baso-mortuak? Zer topa dezakegu bertan?

Osatu puzzlea eta elikatu jakin-mina! ●



Xapoketan puzzlea 15 euroan dago salgai azoka.argia.eus webgunean. Durangoko Azokan Iñaki Sanz eta Eñaut Aiartzaguenak aurkeztuko dute abenduaren 5ean, 10:30ean Saguanbaran.

ARGIAREN LIBURU AURKEZPENAK

Txori urdinak

Espetxe sistemaren erretratu bat Santi Cobos presoaren bizipenen bitartez

Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du
Silvia Cobos Santiren arrebarekin batera.

Abenduak 6 11:30ean

Durango Musika eskolan.

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogoak
Koldo Rabadan Izagirrek liburua aurkeztuko du.

Abenduak 5 11:30ean

Durango Musika eskolan.

Sendabelarrerek dakitena

Ezagutu, bildu eta erabili

Garbiñe Larrea Iturraldeak liburua aurkeztuko du.

Abenduak 3 19:00etan

Errigoiti Elizalde auzoko Ikuilu elkartean.

Abenduak 7 11:00etan

Durango Musika eskolan.

Xapoketan puzzlea

Iñaki Sanz eta Eñaut Aiartzaguenak
aurkeztuko dute.

Abenduak 5 10:30ean

Durango Saguanbaran.

Ilargia eta landareak agenda

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako
2022ko agenda aurkeztuko du.

Abenduak 4 12:00etan

Durango Musika eskolan.

Ilargiaren egutegia

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako
2022ko egutegia aurkeztuko du.

Abenduak 5 16:00etan

Durango Musika eskolan.

Etxeko landareak

Jakoba Errekondok liburua aurkeztuko du.

Abenduak 4 16:00etan

Durango Musika eskolan.

LANDAKETA SASOIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitzak eta arbolak landatzeko sasoiak etorri da. Udazkenaren bigarren erdia eta neguaren lehena, segidan ditugun hiru hilabeteak dira lan horretarako egokienak. Egundunak 14 orduak gaintzen ditu eta egundunak 10 orduak ez da iristen. Bederatzi ordu eta laurden ingurukoa izango da egutegiko neguari hasiera ematen dion egunik laburrena, neguko solstizioa, alegia; aurten abenduaren 21a.

Urtea joan eta urtea etorri, konturatzeko etorri egiten da landaketa garaia eta ni, oster, aurten aldatu nahi ditudan landareen zerrenda osatu gabe. Hostoa galtzen duen landare jendea landatu behar da tarte honetan. Gero negua amaitu eta udaberrian sartzean, egundunak egundunak baino luzeagoa denean landatuko ditugu hostailari eusten diotenak. Aukeran argi asko eta lurra epelduta, biziago, izango dira ordurako.

Hori landatzeko asmotan bazara... Zuhaitzak eta arbolak berez jaio diren tokian uztea litzateke onena. Jaio eta urte bat edo biz hazi diren txirpiak dagoeneko berezko ekosistema osatzen ari dira, lurgainean bezala azpian. Sabin hori, txikia izanagatik, bizidun ekipo baten aldeztalea da. Bizi den tokitik atera eta bizitoki berri baterako bidean jartze hutsarekin bere bizitzako taldea dena galduko da, eta berari estres handia eragingo dio. Biziko den tokian bertan jaio den landareak osasun eta bizi kalitate askoz hobeak izango ditu.



Beleak intxaur bat ekarri eta etxe kontran intxaurrondo beltza (*Juglans nigra*) jaiotzen bada, hobe mugitzea. Etor-kizunean zuhaitz horrek torturatua izateko edo lepoa mozteko aukera guztiak ditu. Hobe, beraz, txikia den artean atera eta toki bakeosoago batean landatzea.

Ekin landaketari. Ozkorroak atsedeanaldian daude, izerdia sustraletan metatua dago, eta hurrengo uda aurretik ondo errotuko da. Has gaitezen: aterasartu lanak ahalik eta azkarrena egiteko, zuloa aldeztatik aurretik eginda eduki, azaleko lur beltza eta azpikoa bereizita atera gero berdin ezartzeko; azalekoari luar edo simaur ondua nahasi. Landarea bere tokitik ateratzekoan hostajearen zabaleraren parean zulatu eta moztu sustraiak. Lehen bizi zen tokian zuen

orientazio bera ematea komeni da. Lepoa, lurpekoa eta gainekoa lotzen diren hori lehen bezala lur azalean geratu behar da; txertatutakoa bada, txertoa lurrazaletik gora nabarmen. Lurra lehen bezala jarri zuloa betez, azpikoa azpira eta gainekoa gora. Ura biltzeko sakon antzeko bat egin zuloaren ertzean, eta egokiena ur puska bat ematea litzateke, sustraiak eta lurra behar bezala elkar daitezen. Sustrai-hosto orekari eusteko inautea pentsatzen baduzu bigarren mailako adarrak pittin bat moztu, erdiko ardatza ez.

Otsaila urruti ikusten dugu, baina konturatzeko hemen da. Banoa ni frandatu beharrekoen zerrenda egitera: artelatza (*Quercus suber*), zumar negartia (*Ulmus pendula* "Mauro")... ●



ZALGIZEKO ETXE GAZNA KOOPERATIBA

ZUBEROAKO GASNAGILEEN
GAZITEGI KOOPERATIBA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

1985ean sortu zuten zazpi laborarik Etxe Gazna kooperatiba, hasiera batean Gotainen. 1992an, ordea, Zalgizera mugitu zuten gazitegia, aurrekoa txiki gelditu zitzaielako. “80 kide gaude kooperatiban oraiko egunean”, azaldu du Bettan Hoqui kideak. Saltzeko gasna ekoizten duten laborariak dira gehienak, baina etxerako egiten dutenak ere badira bazkideen artean. Zalgizeko gunean gasnak ontzeko, analizatzeko eta biltegitratzeko aukera dute ekoizleek, norberaren etxaldean horretarako inbertsio handiak egin beharrik gabe.

KOLEKTIBOAN EKITEAREN ONURAK

Ardi esnearen prezioak behera egin eta sektorea krisian zegoenean sortu zen egitasmoa, momentu hartan ekoizle asko hasi baitzen esnea saldu beharrean gasna egiten. “Orduan erabaki genuen kolektiboki materiala erostea, lana han egikartzeko eta ekoizle bakoitzak gazitegi batean inbertitu beharrik ez izateko”, dio kideak. Hasiera hartan proiektuan sartu ziren ekoizleei lana errazteaz gain, bultzatzaileek ikusi dute gerora hasi diren gazte askorentzako ere laguntza handia

izan dela kooperatiba. “Gasna egiten hasten diren gazteei lan bat kentzen diegu gainetik, eta hasierako kostuak ere gutxitu egiten zaizkie”, gehitu du.

Kooperatibako kideek etxean egiten dituzte gasnak, eta ondoren, Zalgizera daramatzate ontzeko prozesua han egiteko. “Asteko egun bat jartzen dugu gasnak ekartzeko, astelehen arratsaldean. Iristen direnean pisatu egiten ditugu, eta urte bukaeran kooperatibak gasna fresko kiloko 1,25 euro kobratzen dizkie laborariari”, azaldu du. Zalgizeko lanak aurrera eramateko bi langile ditu kontratatatuak kooperatibak; iristen diren gasnak garbitzea, analisiak egitea eta itzultzea dira horien lanak. “Dena den, laborariak ere txandak egiten dituzte kooperatibako langileei laguntzeko, ekarri duten gasna kantitatearen arabera”.

GUNEA HANDITZEKO DIRU-BILKETA ARRAKASTATSUA

Zuberoan bertan edo Zuberoarekin muga egiten duten Biarnoko eta Nafarroa Behereko herrietan ekoiztutako soilik hartzen dute Zalgizen. Horrez gain, kooperatibako parte izateko baldintza bakarra gasna norberak ekoiztutako esnearekin egitea da, eta ez erositako esnearekin. 45 bat etxaldekin eramaten dituzte haien gasnak gaur egun, eta kooperatiban saltzen dituzten gatzagi eta hartzigarriak erosten dituzten beste 30 bat ere badira kide. Erreferentzialtasun handia lortu dute ur-



teotako ibilbidean, eta horren erakusle da 2018an instalazioak handitzeko abiatutako diru-bilketak izandako arrakasta.

“30.000 euroz goiti bildu genituen, eta 400 emaila baino gehiagok hartu zuen parte”, dio Hoquik. Gazitegia handitzeko obrak 2020an egin zituzten, eta joan zen urrian egin zuten gune berriaren inaugurazio festa. Gasnak biltzeko eta hezetzeko lainoztapen bidezko sala berri bat eta gasnertzako “erizaindegia” ere jarri dute, analisisietan arazoak eman dituzten aleak berrogeialdian ezartzeko. ●



LARRABETZU

**LARRABETZUN,
EUSKARAZ BIZI**

www.larrabetzu.eus / udala@larrabetzu.eus

[Facebook.com/larrabetzukupudala](https://www.facebook.com/larrabetzukupudala)

[Twitter.com/larrabetzuudala](https://twitter.com/larrabetzuudala)

[Instagram.com/Larrabetzuko_udala](https://www.instagram.com/Larrabetzuko_udala)



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**





Gure iragan pertsonalarekin eta hil direnen iraganarekin ere bizi gara”

Hedoi Etxarte

Iruñeko Donibane auzoko Rila dendan jarri dugu hitzordua. Horkoa da *Ez dira zaporeak* poemako oroitzapenetako bat: “Igandeko paseoan Ninari / erositako jogurt bulgariarra”. Larunbata da baina denda atarian dago Nina Kostadinova, liburuaren ale bat eman eta poema erakutsi dio Hedoi Etxartek (Iruñea, 1986), pasarte itzuliz. *Suzko lilia* (Susa 2008), *Sinplistik* (2012), segidako hirugarren poema-liburua du *Sortaldekoak*, memoriaz, historia pertsonalaz eta kolektiboaz ari dena, besteak beste. Liburuaren nondik norakoez eta bere obraren bilakaeraz aritu gara kafetegi bateko epelean.



Azaleko argazkian eta liburua ixten duen *Plus Ultra* poeman azaltzen da zuen amona, Pilar Berezibar. Nor gehiago azaltzen da argazkian?

Besteak ere Arrasateko Errekalde etxe-koak dira. Etxe handi bat zen. Uste dut hiru solairu zirela, bitan banatuak. Uste dut argazkikoak Indatarrak direla. Harriagarria da, zeren Berezibartarren argazki gehienak galdu diren arren gure aitonarenak baino askoz gehiago mantendu dira, eta aitona lur-jabe batzuen familiakoa zen, Iruñerria hego-mendebaldekoa. Askoz ondare grafiko handiagoa daukagu industria existitzen den toki bateko proletario baztertu batzuen

garai bereko landa eremuko lur-jabe batzuenak baino. Kontinente eta garai desberdinetakoak dirudite irudiek, gainera. Arrasateko irudietan agertzen diren jantziak oso biziak dira, zuri-beltzeko irudiak izan arren ikusten da. Besteetan denak grisak dira. Arrasatekoetan sarritan irribarreak daude, besteetan oso aurpegi serioak.

Dragoiak poeman aipatzen dituzu Errekaldetarrak. Arrasaten egindako ibilaldi batean ere irakurri zenuen poema, nondik sortu zen ibilaldi horren asmoa?

Anaiak izan zuen ideia, aitari omenaldi

bat egiteko. Juan Ramon Garai historialari eta militanteak lagundu zigun. Juan Ramonek eta gure aitak harreman handia izan zuten, bereziki amonaren bidez, hark lagundu izan baitzion argazkietan eta jendea identifikatzen. Amona hil eta gutxira atera zen Arrasaten 1936ko gerran egon zen errepresioari buruzko dokumental bat, emakumeengan zentratu zena. Pilarrek gauza asko kontatzen zituen, baina ez zuen inoiz nahi izan erregistratzea, joan behar zinen koadernoarekin eta apuntatu, ez zen dokumentalean agertu. Baina bere gogoetak *Arrasate 1936. Belaunaldi etena* liburuaren edizio desberdinetan agertzen dira.

Arrasaten egindako ibilaldian Errekaldetarren edo Berezibartarren aitzakiarekin Arrasateko langile mugimenduaren historia bat egin zuen Juan Ramonek. Hasi ginen Debagoienan fusilatutakoen omenezko monumentutik, pasa ginen garaian Union Cerrajera egon zen tokitik, Biteri eskolatik, Errekalde etxea zegoen tokira ere joan ginen eta bukatu genuen Herriko Etxea egon zen trinketea. Juan Ramonek *Dragoiak* poema ezagutzen zuen, eta ibilaldi horretan egin nuen gauza bakarra, koordinatu eta jendea gonbidatzeaz aparte, poema irakurtzea izan zen. Ez naiz abila publikoki poemak irakurtzen, eta are gutxiago halako konexio esanguraz betea eta tristea baldin badago, hain porrot handiaren egiaztapena daukaten testuak badira. Baina, aldi berean, niretzat garrantzitsua izan zen poema hori irakurtzea, poesia ulertzeko daukadan modua aldatu zuen. Hor ulertu nuen zer den poesia soziala, ez akademiak eta zenbait soziologiek ulertzen duten bezala gizartearen tentsioak erakusteko funtzioa duen poesia gisa, baizik eta hori entzuten ari ziren guztiak elkartzeko poesia gisa. Belaunaldi modura, porrotaren kudeaketa desberdina eduki dute guztiek ibilaldiran egon zirenek. Poeman aipatzen direnen alabak dira batzuk, beste batzuk bilobak... Gertatutakoa ezabatzen saiatu ziren batzuk, lazgarria dena ukatu eta hurrengo belaunaldiek ia ez dezatela ezer jakin. Beste batzuen kasuan hurrengo belaunaldiek jarraitu dute politika askatzailan, iraultzailean, nahi baldin bada, eta haiek ere izugarritzko errepresioa jasan dute, beste molde batzuekin. Poema idazten ari nintzenean ez nuen horretarako asmorik, baina ekitaldian egon zen jendearen izebez, amez, aitonez ari nintzen, eta bertso gutxi batzuetan toki bat eman nien, batasun bat, historia partekatu iraultzaile eta galtzaile batena. Poema hori Xuan Thuy poeta vietnamdarra irakurtzen ari nintzela atera zitzaidan, baina egia da banuela grina Dragoiei – JSUren batailoia – tokia gitekoa, eta lotura batzuk agertu ziren. Iruditzen zait, gauzak diren bezala, oso izen ona zutela.

Nola eraiki zenuen poema?

Egia aitortzeko, poema hori funtsean Juan Ramon Garaik eta Intxorta 1937 elkarteko kideek egindako memoria lanetatik aterea da, edizioz edizio osa-



tzen doazen liburutik. Horrekin eraikita dago neurri handi batean, eta gero gure amonak kontatzen zituen gauzekin. Saga baten ideia garatu nahi nuen, eta, gainera, politena izan da poema funtzionatzen ari dela, baina ez Berezibar abizena dutenekin, beste herri batzuetan, beste erakunde batzuetan, egon zirenen ondorengoak etorri zaizkit.

Horrekin lotuta, badut galdera handi bat, neurri batean amorrutik egina: non dago 36ko gerra euskal literaturan? Beste akusazio handi batzuk egiten dira, non dagoen ETari buruzko literatura, nola adierazi den, baina non egon dira euskal idazleak 70eko baina bereziki 80ko hamarkadatik hona, horrekiko? Egin behar dugun galdera da ea zergatik

erabaki duten hegemonia guztiz hori ez dela literaturak landuko duen pasarte bat. Ez naiz esaten ari 1940an euskal idazleak horretan aritu behar zirenik, baina 80an ez egotea? 90eko eta 2000ko hamarkadetan ez egotea? Non daude zinema zuzendariak? Ez dizut esango egin beharreko film historiko guztiek pasarte hori landu beharko luketenik, baina oso bitxia egiten zait. Oso gutxi konta daiteke poema liburu batean, eta helburua ez zen hori bakarrik kontatzea, baina badago zer kontatu. Ateratzen dudan ondorioa da erabaki politiko bat izan dela horretaz ez hitz egitea. Badaude salbuespen batzuk, baina ez zaizkigu bururatzen dozena erdi baino gehiago eta oso seinale txarra da hori.

Bigarren atalaren hasieran Hannah Arendten aipu bat dakarzu: “Zer da pertsona bere historiari gabe?” Zer ari gara ahazten?

Arendtek badauka liburu oso polit bat, ez oso ezaguna, Rahel Varnhagen XIX. mende hasierako emakume judu filosofoari buruzkoa, eta hor botatzen duen gogoetetako bat da. Uste dut gu gure historia garela, batetik, eta *Gure historia da etorkizuna* liburuan Nick Estesek esaten duen bezala, siuxen denboraren kontzepzioetik, gu ez gara bakarrik bizi gaurko eguna duen egun horretan, bizi gara gure iragan pertsonalarekin, baina baita hil direnen iragan pertsonalarekin ere. Niretzat izan dezake presentzia handiagoa gure amatzik haurtzaroan bere lehengusu batekin igerilekuan pasatzen zuen denborak, askotan kontatu zigulako eta berarentzat inportantea izan zitekeelako une hori, egunero egin ditzakedan gauza askok baino. Hildakoei badute presentzia hori. Hildakoen poezek, porrotek eta frustrazioek ere tokia dute gurean. Bada horrelako abiadura bat inposatu nahia gauzak iraganekoak direla esatea. Mendebaldeko tradizioetik egiten den irakurketa hori, lineala, atzerapenarena eta aurrerapenarena, ez zait interesatzen. Uste dut politikoki nahiko demostragarria dela historiak ez duela klabe horretan funtzionatzen eta esango nuke gure izaerak ere ez dutela horrela funtzionatzen. Horrela esplika daiteke anabaptistek erreformaren garaiko gerrian erabilitako latinezko lema bat –*Omnia sunt communia*– eslogan gisa hartzea gazte lokal batek Iruñean 2021ean. Horko inork ez dauka odol harreman bat masakratu zituzten iraultzaile horiekin, baina bere burua haien oinordeko gisa ikusten du. Ez fribolitate ariketa gisa, baizik eta historia beren gain hartuta.

Bi arimak poeman bi molde bereizten dituzu, eguneroko intimitatearen kontaketa alde batetik, eta taldearen, klasearen kontaketa bestetik. Kontrajartzen dira?

Bai, sentitzen dut talka bat, baina gehiago da literarioa. Egunerokoan gertatzen zaizkidan gauza horietaz idazten dudanean kontzientzia politiko landutik oso urrun egon daitekeen modu batean jokatzeko dut. Duela hamar urte norbaitekin izandako gaualdi bati buruz idaztean eta *Dragoiak* poema edo *Audi A4 zuria* idaztean bulkada oso desberdina balitz bezala sentitzen dut. Ez naiz ari



Hedoi Etxarte eta Nina Kostadinova Donibaneko Rila dendaren kanpoaldean.

kontraesan politiko bati buruz, baizik eta hori lantzen ari naizenean oso gauza desberdina ateratzen zaidala. Printzipioz intimitatean sartuko genituzkeen testu horien emaitza ia-ia lanketarik gabe literarioa iruditzen zait. Ziur aski erreferente asko ditudalako, bibliografia oso bat, esaten didana terraza batean zaudenean gertatzen diren gauza horiek nola kontatu asmatzen baduzu hor badagoela poema bat. Eta nahiko modu obsesiboan bilatu arren, taldearen kontaketa hori ez dut hainbeste aurkitu, ez da gaur egun indartuta dagoen zerbait. Historikoki ere, printzipioz horren alde egon direnek, Bertolt Brecht batek, Roque Dalton batek, adibidez, esango nuke ez dutela taldearen sorkuntzaren, genealogiaren bereziki landu. Iraultza-ren estetika bat egin da gehiago, izenak aipatuz, tokiak aipatuz. Dekoratu landu da, auzi zehatzak landu dira, baina ereserkiak alde batera utzita lehenengo pertsona plural hori aipatzen dutenak ez zaizkit okurrizten. Errepresioaren ingurukoak bai, baina ia beti dira pertsonaletik abiatuak ala pertsona zehatz bati buruzkoak. Zentzu horretan, Assata Shakur asko gustatzen zait, ez dauzka poema asko, baina uste dut hori dela berak egiten duen gauzetako bat. Horrelako poemak lantzeko Ezra Pounden poemetara ere itzuli naiz behin eta berri. Zeren tipo horrek eraman egiten zaitu, eskutik heldu eta bere bulkadan sartzen zaitu.

Bederatzi urte pasa dira aurreko poema-liburua argitaratu zenuenetik. Nola eraki duzu liburu honetako ahotsa?

Aurreko ahotsarekin hautsi nahi nuen, eta hori oso zaila da. Puntu berean nago orain. Orain uste dut hau nire ahotsa dela, baina ahots hau eraiki egin dut. Existitzen den ala asmatzen duzun tradizio bat aurkitu behar duzu, gai batzuk lantzen dituen, toki jakin batetik, eta pixka bat koherentea izan daitekeena, eta sinetsi behar duzu tradizio horretan. Iruditu behar zaizu benetan tradizio horrek zerbait nabarmena eskaini diola literaturari. Lehenengo liburuan surrealismoaren tradizioan nengoen, eta hortik idatzi nuen. Bigarren liburuan bereziki 20ko eta 30eko hamarkadetako eztaba-detan murgiltzen saiatu nintzen: Lukacs, Adorno, Benjamin... Bigarren liburutik hona zubi-lana egin du Pre-textos argitaletxeak argitaratutako Brechten *Poemas del lugar y la circunstancia* antologiak. *Sinplismen* aurreko garaian axalekoa iruditu zitzaidan, eguneroko bizitzari buruzko Brechten poemen hautaketa bat baita. Haserre bezala nengoen liburuarekin, Brecht traizio egitea iruditzen zitzaidan. Aldi berean, Rubeni, –Ruben da editoreei zerbait erakusteak lotsa edo beldurra ematen didanean testuak lehenago irakurtzen dituen lagun handia– kontrakoa iruditzen zitzaion, hori zen bere ustez Brechten libururik onena. Halako batean berriro hartu nuen,

eta ez dut esango denik bere libururik onena, baina ulertu nuen antologiaren zentzua. Ez da nik hasieran uste nuen bezala Brecht naturalista bat edo Brecht politikatik erauzi bat, kontrakoa, momentu horietan Brecht non zegoen ikusiz gero, zein erabaki pertsonal, politiko, artistiko hartu zituen, liburuan agertzen dira erabaki horiek. 20 edo 22 urte nitueneko optikatik mundua hondoratzen ari zela ureztatu behar diren lorategiko landareei buruz aritzea tontokeria bat iruditzen zitzaidan. Gero konturatu nintzen ezetz, Brechten handitasuna hor dagoela hain zuzen, Luxemburgoren ala Gramsciren handitasuna naturarekiko eta animaliekiko duten gogoetan dagoen bezala, eta ez hainbeste kontzientzia politikoa lantzen saiatzen garenok dugun obsesio filologikoaren optika horretan, ideien kontzeptuak egitearena, historia ideiak bakarrik balira bezala. Sarritan, hain justu ere printzipioz iraultzailea den tradizio batek egin beharko lukeenaren kontrakoa egiten amaitzen dugu. Alde batera uzten dugu, ez kapitalismoak planteatzen duen bezala, baizik eta proiektu iraultzaileek planteatu duten bezala, zein garrantzitsuak diren keinuak, zein garrantzitsuak ziren katuak eta ea izenak jarri behar zaizkien ala ez Leninentzat, ala irakurle taldeak Krupskayarentzat. Hor dago bizitza, hor dago jokoan dagoena. Zubi-lan horretatik iritsi nintzen Louise Glückengana eta gero Sharon Oldsengana. Emily Dickinson ere hor egon da beti, katebegi galdu gisa. Gauza isolatu moduan ikusten nuen, eta konturatu naiz ezetz, ahots horrek AEBtako tradizio poetikoan lotura handia daukala eta gainera indar handiz hartzen duela niretzat beti oso interesgarria izan den Edna St. Vincent Millayk. Oso ongi konbinatzen du hiri-ko optika bat naturarekin, kontzientzia

politikoa kontzientzia afektiboarekin. Nire kasuan hori izan da bidea: genealogia bat aurkitzea, liburuekin, izenekin, tokiekin, egiteko moduekin, eta behin hor murgilduta zaudela lantzea zure eszenak, gaiak...

“

Euskal literaturan
36ko gerraz ez
hitz egitea erabaki
politiko bat izan da”

Iruditu zait hirugarren honetan badagoela obraren gaineko kontzientzia handiagoa, aurreko bi liburuak batzen eta gainditzien direla nolabait.

Zorte deskribaezina eduki dut, eta ez zait bururatzen ezagutzen ditudan literatur sistemetan halako besterik, eta izan da Susan publikatzea. Susan publikatzeak esan nahi du poema-liburu bat egiten duzunean, hasteko, liburu bat egiten duzula eta ez zure poemen antologia bat, eta beraz, liburua inprentara iritsi baino dezente lehenago literatura sozializatzeari buruz galdera asko egiten dizkizutela, eta egiten dizkiozula zure buruari. Zorte horretatik abiatu nintzen. Liburuaren zirriborroaz aritu ginen egunean, Iruñeko Cafe Rochen, Gorka Arrese, Iñigo Aranbarri eta Patxi Larrionekin, hor ja literaturaz hitz egin genuen, zer irakurtzen nuen, zer interesatzen zitzaidan... Oroitzen dut nola Iñigo Aranbarrik heldu zion Préverten ildoari, Arresek Stefan

Zweigen xake-nobelari. Duela hamalau urteko printzak oraindik iristen zaizkit.

Bigarren liburua egiterakoan krisi bat izan genuen liburuan planteatzen ziren gauza batzuen inguruan, berridazketa ia erabatekoa egin genuen, besteak beste liburu hori beste leku batzuetan zegoelako kokatuta eta Arresek esan zidan Iruñerrian gertatu behar zela; bete-betean asmatu zuen. Gero, betikoa, liburu honetan gertatu den bezala, idatzitako poemen herena ez da liburrara iritsi. Leire Lopezek behin baino gehiagotan esan dit: "Hau oso *Sinplistik* da", ala "Honek ez du bat egiten liburu-ko ahotsarekin"... Badira gai batzuk poema batean baino gehiagotan landuak nituenak, berridatzi ditudanak, eta ez dira liburrara iritsi, liburuaren onerako.

Niretzat guztia ari da obraren zentzua hartzen. Titulu guztiak 's'-rekin hasten dira, lehenengo liburuak bi zati zituen, bigarrenak hiru, eta hirugarrenak lau dauzka. Azalaren inguruko gogoeta bat dago... Bigarren liburuan indartu zidan Gorka Arrese kontzientziaren kontu hori, beste ahots bat bilatzearena. Oso garbi ikusi nuen hori *Sinplistik* amaitu eta gero, handik pare bat urtera. Jarraitu nuen poemak idazten, baina aurreko liburuan sar zitezkeen poemak ziren. Duela lau urte berriz hasi nintzenean, *Suzko lilia* ateratzen zitzaidan, berriro munduarekiko maitementzearen inguruko gauza horiek.

Zerbait egin nahi baduzu gai izan behar zara zerbait desberdina egiteko, hori da nire kasuan funtzionatu duena. Obraren kontzientzia badago, obrarena eta baita mugena ere. Baditut buruan pare bat liburu poesia ez direnak.

Gero eta zailagoa egiten zaidan ariketa da ahots desberdin bat bilatzearena, niri iristen zaidan literatura kakotx artean mugatua da, ez daude hainbeste ahots ere, baina ikusiko dugu. ●

Bizi Irura euskaraz!



Irurako udala

San Migel plaza 1, 20271

udala@irura.eus

www.irura.eus



LIBURUA

Arras Hasier



IHES BATEN LAUSOA HASIER LARRETXEAA

BALEA ZURIA, 2021

IGOR ESTANKONA

Erretrobisorera kiribildutako/ arrosarioa da iragana". Eta ez dakigu zer gertatu zaion Hasier Larretxeari, igual gertatu zaio gertatu zaizkiola bizitzak aurrera egin ahala gertatu ohi zaizkigun gauzak. Baina berak eder eta erromantiko jartzen ditu bertsoak: "Erretrobisorera kiribildutako/ arrosarioa da iragana".

Osaba Donatoren aizkora bezain zorrotza eta sugea bezain azkarra bere luma, biziki maite eta gorroto genuen guk Hasier Larretxea probokatzailea eta heterodoxoa. Gure poeta euskaldunen artean euskaldunena bera ez bazen, bere edizio elebidun horiekin...

Oraingoan, ostera, arean ezkutatu da *Ihes baten lausoa* arrunt lauso honetan (Balea Zuria, 2021), arean ezkutatu da


agertzeko, oroitzeko, altzora itzultzeko: "Ahanzturaren udaberriko itzalpean/ hamarkadetan entzun ez den/ xuxurla baino ez gara.// Mizpiraren erorketa,/ salbamenik gabea".

Liburua nahasi xamar hasten da, nora gabe antzean, zezelka eginez atrebitzen ez denak bezala. Gero ohartzen da bat ez dela erraza bakeak egitea gure irudi propioarekin, lehenengoz zauritu gintuzten haien abizenekin: "Txori hegal zaurituak/ ezin du...". Eta elur-argia bezain liluragarri agertzen da gero testu biografiko hau hasieran, badiotsuet, gogor egin zaidana eta azkenean konbentzitu eta are gatibatu egin nauena: dena zuri, dena hotz, batzuetan hitz bakar bat, abesti bat entzuteko gonbita. Edo argazki bat osterantzean. Edo are sekula har-

tu ez zen argazki hura. Atera ziren argazki guztiak baino garden eta argiago ageri baitira orain, urteak igarota, jauregiak eta landa berdeak gure begien parean.

Ez da konplikazio bat Larretxearen diskurtsoa. Kontrara, nahasi egiten zaitu bere kontuetan, bere imajinetan. Ezin baita beste modu batera adierazi *Ihes baten lausoa*. Lizuna eta lohia da eskuekin lehenaldiko idealizazioak ukitzen dituenen -uharka bat, iratze metak-, eta ederra eta mistikoa ere bai uneka heriotza saihetsezinetik bizitzari kantatzean; "idazketa bada garbiketa modu bat". Izan ere, izan ginelako gara, eta halako batean izateari utzi geniolako lortu dugu bizirik jarraitzea oraino, lurretik goratzea artea eta poesia, gero berriro ezinbestean lurrera itzultzeko. ●





MUSIKA

Amodio hiltzaileak



ABAO / E. MORENO ESQUIBEL

OLBEk antolatutako Pietro Mascagni-ren 'Cavalleria rusticana', eta Ruggero Leoncavallo-ren 'Pagliacci' operak. Euskadiko Orkestra. **Zuzendaria:** Daniel Oren. Bilboko Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Jorge de León (tenorea), Ekaterina Semenchuk (mezzoa), Ambrogio Maestri (baritonoa), Rocío Ignacio (sopranoa), Elena Zilio (mezzoa), Belén Elvira (mezzoa), Mikeldi Atxalandabaso (tenorea). **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** azaroaren 20a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBERen opera-zikloaren bigarren saio honetarako, ikusleek ondo ezagutzen eta maite dituzten bi izenbururekin egin dugu topo, gai unibertsal bat komunean dutela: jeloskortasuna eta mendekua. Bai *Cavalleria rusticana*-n, bai *Pagliacci*-n, jeloskortasunak eta amorruak itsutu egiten dituzte maitearengatik arbuiatuta sentitzen direnak eta krimenak egiten dituzte, haien haserrea eta inbidia asetzeko.

Sizilia "de rompe y rasga" delakoa-ren testuingurua erabat islatuta geratu zen Euskaldunako agertokian, *Cavalle-*

ria rusticana eszenaratzean. Muntaia sinplearekin eta argiztapen bikainarekin ezin hobeto birsortu zen Santuzza gaixoak bere maitasun handia heriotzara daramaneko giroa. Ekaterina Semenchuk-ek Santuzza zoragarria interpretatu zuen, ahotsean eta keinuetan. Soila, gehiegikeriarik gabea eta oso sinisgarria. Jorge de León ere, Turidduren paperean, maila altuan aritu zen, baita Elena Zilio txundigarria ere. Mezzoak 80 urte ditu, eta ahots potentzia bikainarekin eta energia handiarekin egin zuen Mamma Lucia-ren papera.

Hala ere, esan dezakegu *Pagliacci*-rekin iritsi zela gauaren gailurra. Hemen bai, Jorge de León tenoreak bere distira guztia erakutsi zuen. Eszenatokian aske aritu zen eta bere ahots indartsua une oro kontrolatu zuen. *Vesti la Giubba* aria ospetsua biribila entzun zen bere ahotsean. Era berean, Rocío Ignacio soprano sevillarra, Neddaren paperean, primeran aritu zen, eta Ambrogio Maestri baritonoak, Tonio bezala, bere arietan taxuz abestu zuen.

Euskadiko Orkestraren laguntza zehatzak koroatu zituen interpretazioak, inoiz ez bezala Daniel Oren-en gidaritzapean. ●

365 egunez

euskaraz

bizi

nahi dut





Ilargi argiaren itzala

MARTA SENDIU ZULAIKA ANA RIO TARACIDO

Azaroko gau hotz hauetan Gasteizko kaleak ez ditu ilargiak argitu, Umbra argi festibaleko ikuskizunek baizik. Argi gutxi-ko egun labur hauetan argien artearen munduan barneratzeko aukera eman digu jaialdiak, izan ere, ikusleek esparru horretako azken adierazpen artistiko eta teknologikoen esperientzia bizi ahal izan dute.

Arte bisual digitaleko 19 ikuskizun bildu dituzte aurten, hiriburuko kale, enparantza, eliza eta eskulturetan. Erdigune historikoan oinarritutako edizio honek artelanak askotariko ibilbideen bidez ikusteko beta eman digu. Gasteizko Alde Zaharreko, hiriko hegoaldeko eta Zabalguneko eremuak hartu ditu antolakuntzak, espazioen artean tartea utziz. Neurri horiek ez dira bakarrik

pandemiagatik hartu, baizik eta 2019ko lehenengo edizioan izan ziren hainbat eragozpen bideratzeko asmoz.

EHUko Hezkuntza eta Kirol fakultetetik hasi, Arabako Arte Ederretako Museotik igaro eta Aihotz plazara arte luzatu da ibilbidea. Tartean, Villa Suso Jauregia, Erdi Aroko hozkailua, Santa Maria Katedrala eta Artium museoa hartu dituzte ikuskizunek. Argiekin batera musikak ere bere tokia izan du, adibidez, *Miradas* ikuskizunean. Espazio zehatzetara egokitutako proiektuak ere izan dira, hala nola *Icesky* izenekoa, zeina, modu poetiko eta sinple batean, zeruaren eta lurraren arteko erlazioaz mintzo den.

Oraingo edizioan ere *videomapping* edo eraikin zein hormetan egindako proiektzioak eta argizko eskulturak

UMBRA JAIALDIA

NOIZ: azaroak 12-13-14

NON: Gasteiz

ikusgai egon dira. Gainera, bi nobedade aurkeztu dituzte: Andra Mari Zuriaren Plazan 360ºko instalazio bat, eta performance bisual bat margoa eta argia lantzen dituen artista batekin.

Orotara, jatorriko askotako 20 artistak parte hartu dute festibalean, hala nola, Tolouse, Montevideo, Buenos Aires, Belgrado eta Espainiako Estatutik etorritakoak. Aukeraketa bi konkurso publikoren bidez egin dute eta xede nagusia argiaren hezkuntza bultzatzea izan da.

Instagramreko erabiltzaileek ulertzeraz eman dutenez arrakasta izan du 2021eko edizio honek. Erabiltzaileen *story*ek asteburu luze honetako ikuskizunak erakutsi dituzte, jaialdia bizitzeko eta ikusteko milaka ikuspuntu azaleratuz. ●



Hitz gezidunak

* Gaia: Durangoko azoka

OIHAL MOTA OINAZEA	PUNTUAZIO- MARKA HERRESTAN, ARRASTAKA	LOZORRO	LAUGARREN MUSIKA NOTA SUTEA	JABETASUN ATZIZKIA LISTUA	IRAKASLE BUDISTA PERTZA	NEKAGAITZ IZAKI ZELULA- BAKAR
		OSATUTA EZ DAGOENA DAUKA (AL- DERANTZIZ)				
GARESTITU * ANTOLATZAI- LEA			SOKA SENDOAK GIGA		BERNIZ DISTRATSU ... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA	
PLATER (IPARRAL- DEAN)	RADONAREN IKURRA * GUNEAK				INFUSIO * IKASLEEN- TZAKO LEHIAKETA	
					APAIZ BEHERANTZ JOAN	
ERABAT BETE EGOKI						
	SUFREAREN IKURRA LEIZE, AMILDEGI				LASTER DAGOENAKO	
JUSTU, NEURRIZ ITXURA, TAXU		DAUKA *AURTENGO EDIZIOA ERROMATAR ZENBAKIZ	PINU MOTA ARRAZOI, ZERGATI	HIZKI PUNTUDUNA OIHAL FIN ETA GARDEN	MODU ATZIZKIA HILOBIETAKO IDAZKUN	SAN MARTIN ... NAFARROAKO UDALERRIA
		LUZEKA ADORE EMATEKO HITZA				AZKEN BOKALA ALDE!, OSPA!
UKRAINAKO HIRIBURUA TOKI HONE- TARAINO			IRUDIAK DITUENA NEWTON			
				LAPA-BELAR		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2	3	6				4	
				4	2	3		
			3				5	
7	5	6					3	
			9		3			
	3					8	1	5
	8				9			
		4	7	3				
	7				5	9	6	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Hutsik gelditu
- Ukamenak
- Adabaki trauskil
- Tentel, motel
- Hunkitu

EBAZPENAK

- HUSTU
- UKOAK
- SORKI
- TAKET
- UKITU

4	9	6	5	8	2	2	7	1	7	3
1	8	4	7	3	9	3	8	5	4	2
6	8	5	4	1	9	6	7	2	3	
4	3	6	9	2	6	7	8	1	5	
8	1	2	9	5	3	4	7	6		
7	5	6	1	8	4	2	3	9		
9	4	8	3	7	1	6	5	2		
1	6	7	5	4	2	3	9	8		
5	2	3	6	9	8	1	4	7		

X	L	V	P	T	O	N	I	V	N	O	H
N	I	D	I	R	I	E	S	V	I	K	
U	A	R	E	Z	U	L	S	A	J		
O	T	I	L	D	I	O	D				
N	I	R	A				S		N	O	
I	R	O	E				E	S	V		
Z	E	P	A				T	V	L	P	
E	T	O	D	A			N	R			
A	V	L	A	V	G	A	I	D	E	R	E
K	V	M	N	U	U	T	U	R	V	K	
E	G	V	U	T	S	O	V	N	I	M	
N	L	D	F	L	P						

Oinatz Mitxelena Munduate

BIZIKLETA BIZILAGUN



IRRIBARRE BERDEKO PERTSONA

Txiki-txikitatik izan du bizikleta alboan Oinatzek. Izan lagunengana hurbiltzeko, lanera joateko... Ez du mugikortasuna beste gisan ulertzen. Bizitza erritmo gogorra alboratzeko apustua egin eta erronkaz erronka bizi da lan orduetatik at. Hamarnaka ordu pasa ditu bizileku duen autokarabana barruan Euskal Herriko itzulia egiteko mapak eta etapak aztertzen. Besteok traba edo izuak sumatzen ditugun lekuan aukerak eta abenturak ikusten ditu berak. Betaurrekoie moreaz gain, beste kolore bat erantsi beharra sumatu dut bere hitzetan. Lasaitasunaren berdea, adibidez.

“Bizikleta gaineratik Bidasoa ibaia beste modu batera ikusten da, eta beti ezberdin”

Dena utzi eta Aragoiko Pirinioak hartu zituen bizileku Oinatz Mitxelena Munduate irundarrak. Autokarabana etxe eta bizikleta bidelagun, halaxe bizi da azken hiru urteetan. Libre duen denbora bi gurgilen gainean edo bidaiak diseinatzen ematen du. Hala, “Euskal Herria Zazpiak bat, Euskal Herria marrazten” erronka egin berri du irailean. Mila kilometro egin ditu zazpi egunetan, zazpi probintzien ertzak bizikletarekin marraztuz.

✂ AITZIBER ZAPIRAIN 📍 IRANTZU PASTOR

Dena alboratu zenuen orain dela hiru urte, autokarabanan bizi eta bizikletaz bidaiatzeko asmoz.

Hala da. Arrazoi ezberdinak tarteko etxea utzi eta Aragoiko Pirinioetara joan nintzen. Egungo bizitza erritmoa baztertzearen aldeko apustua egin eta bizitza filosofia aldatzea erabaki nuen. Askorentzat xelebrea izan arren oso zoriontsua naiz gutxiarekin, gehiagoren beharrik izan gabe. Nahi dudana bezala bizi naiz. Sukaldari moduan aritzen naiz lanean eta mendira joaten naiz denbora librean. Pandemiaren eragina pasa dut, mendiak ematen duen askatasunari esker gaitibu egotearen sentsazioak gabe. Hain ere alokairuak oso garesti daude eta lana bilatzerako unean laguntza handia izan da autokarabana ukaitearena. Bizilekua enpleguaren menpe ez edukitzearen xantza daukat.

Euskal Herria marraztu duzu irail honetan, bere ertzetatik bizikleta itzulia eginez.

Buruan bidaiak asko izan ditut, amesturikoak, eta Euskal Herriari itzulia egitea zen horietariko bat. Jatetxeak lana amaitu eta una heldu zela sentitu nuen. Mapak aztertu, bidaiak diseinatu eta Euskal Herriari itzulia eman ahal

izan diot bizikleta gainean. Gipuzkoa eta bereziki Bizkaiko kostaldea egin zaizkit gogorrenak, baina gainontzean izugarrizko gozatua hartu dut. Zazpi egunetan, gainera, eguraldia lagun izan dut, arazo muskularrik ez dut ukan eta istripurik ere ez. Dena ongi aterata da, zorte handia izan dut. Zazpi etapatan banatu nuen bidaiak, egunero batez beste 140 kilometro eginez. Guztira mila kilometro inguru egin ditut. Ez dut aterpe edo hoteletan lo egiten, kalean baizik, beraz askatasun osoa izan dut geldileku eta lotarako lekuak aukeratzeko unean.

Kalean egin duzu lo?

Bai, abenturaren parte da. Halako bidaietan erraza izaten da aterpeak lortzea, baina niri herrian barnerrazteak gustatzen zait. Azken kilometroak bazter eta txoko guztietara begira pasatzen ditut, lotarako lekuak aukeratzen. Estalpe bat nahikoa zait eta aukeran iturri bat gertu, afaria prestatu eta biharamunean botilak urez betetzeko. Esterila eta lo-zakua lurrean jarri eta begiak itxi. Hala egiten dut. Arazorik ez ote dudana izan galdetu dit jendeak, baina aldearantziz. Laguntza gehiago jaso dut kexak edo oztopoak baino.

"Ez dut egungo turismo eredua atsegin; herria barrutik ezagutzea gustatzen zait, eta hori beste estilo batekin egiten da. Lasaitasunez".



Nola antolatu duzu zer eta nola eraman?

Bi poltsa txiki erabili ditut. Orotara 22 litro inguruko edukiera, ez gehiago. Esterila, lo-zakua, sua, eltze bat, kulot pare bat, toalla bat, sua, gasa... Gehiagorik ez. Eta janaria unean unekoa, zuhaitzetatik fruta hartzen ere ibili naiz. Piku eta sagar mordoa jan ahal izan dut. Ahalik eta pisu gutxien eramanen nuela argi nuen, bestela ezinezkoa da. Gutxika ikasten den zer baita da hori. Lehen badaezpada dako gauza asko sartzen nituen. Orain badakit zer erabiliko dudana. Irten baino hiru egun lehenago prestatzen dut dena. Oraingoan, adibidez, zirazko galtzak kanpoan utzi nituen. Eguraldi ona izan nuen eta eskerrak!

Zer sentitu zenuen amaitu zenuenean?

Buruan urte luzez gordea ukan dudana amets bat bete nuela. Eta gure herriaren mapa, hainbeste lekutan ikusi duguna, bizikletaz marraztu ahal izan dudala. Hainbeste denboraz landutakoa lortuta, burua hutsik gelditu zitzaidan, "orain zer?" pentsatu nuen. Oraindik hala nabil.

Zergatik bizikleta bidelagun?

Txiki-txikitatik zaletu nintzen. Dena egiten dut bizikleta gainean. Kirola, paseoak, garraioa... Bidaiatzeko modu sanoenetako bat dela esango nuke. Baita txokoak ezagutzeko ere... Jende oro animatuko nuke probatzera, asteburu batez bada ere. 30 kilometro eginez, adibidez. Errepidetik ibiltzeko beldurra izanez gero, pistak badira gure herrian. Bidasoan, adibidez, Bide berdea dugu, Donezteberaino joan eta biharamunean itzul zaitezke. Bortziri eta Malerreka ezagutzeko aukera paregabea da. N-121a autoz zeharkatzen dugunean herriak pasatzen ditugu, baina bizikleta gainetik Bidaso ibai beste modu batera ikusten da, eta beti ezberdin.

Eguno bizi erritmoari ihes egin diozu, askatasun bila?

Bai, guztiz. Ez dut esango telefono gabe bizi naizenik, familia eta lagunak ditudalako. Lasaiago bizi beharko genuke denok. Ditudan sare sozialak mendi edo bizikleta ibilbideak egiteko dira. Paperezko mapak begiratzen ditut beste ezer baino gehiago. Autokarabanan

ez dut telebistarik eta ordenagailua oso gauza zehatzetarako pizten dut.

Azkartasuna moteldu beharko genukeela uste dut, guztion osasunerako eta ingurugiroaren hobe-beharrez. Mundua goitik behera ezagutu nahi dugu, baina nola egiten dugu hori? Ez dut egungo turismo eredua atsegin; herria barrutik ezagutzea gustatzen zait, eta hori beste estilo batekin egiten da. Lasaitasunez. Gaur hemen eta bihar han, ez da posible. Gaur hemen bazaud, gozatu hemengoaz. Ezagutu etxea, atzerrira joan aurretik. Oso eroso nago lasaitasun horretan.

Euskal Herriaren itzulia egin ostean, zein txoko aukeratuko zenuke?

Ezagutzen ez nituen leku asko pasa ditut, zaila da bakarrik aukeratzea. Bastida esango nuke, adibidez. Hara heldu eta gelditu nintzenean, harresian paseoa eman ostean bertako kobazuloan lo egiteko gogo sartu zitzaidan, baina bizikleta beherago utzi behar nuen eta traba egingo ote zuen ez nekienez beste leku batera mugitu nintzen. Baina ederra da lekua. Zaila da aukeratzea, etxe ederra da gurea. ●



Jaurlaritzak “P”-rekin hasten diren alderdi politikoak diruz lagundu ditu, “pandemiaren ondorioei aurre egiteko”



Jaurlaritzaren diru laguntzak sortzeko bulegoa, egun normal batean.

PP, PSOE eta PNV alderdiek positiboki baloratu dute Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetarako irizpide berria, “pandemiak gogor kolpatu duelako esfera politiko osoa, baina bereziki gu, aurrezkiak hutsean uzteraino”. Hala berretsi du Berdintasun, Justizia eta Lagunak Saileko bozeramaile Bin Zuziriak: “Gure inkesten eta neurketen arabera, COVID-19aren aurrean, ‘P’ hizkiak hasten diren alderdiak dira kolektiborik zaugarrienak eta birusaren haserre

gehien sufritu dutenak. Barkatu, gehien sufritu dutenak ez, sufritu duten bakarrak. Eta orain, tira etxera, ColaCao bat eta ohera denok”. Podemosetik galdetu dute haiek zergatik utzi dituzten kanpoan, irizpide alfabetikoa betetzen dutenean. PNV-koen erantzuna izan da izenen euskarazko aldaera izan dutela kontuan, eta ez kexatzeko hainbeste ea euskararen sustapenerako laguntzetatik kanpo utziko dituzten horretarako gatzelaniazko aldaera aplikatuta.

Happy Black Friday, laguntxoak



STEVE CUTTS

SAREAN ARRANTZATUA



Iruñean kaña batzuk hartzera joateko prest



Jaungoikoak ez bazuen sortu eguzkia laugarren egunerarte.. Zelan demontre igaro ziren lau egun??



MEMETZAINDIA | FACEBOOK



EUSKADI BASQUE COUNTRY

Maskara erabiltzea kultura babestea **DA!**

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Munduan hainbat hizkuntza dauke
hizkuntza bat mundua da,
hitz bakarrean mundu bat dago
gure munduan euskara
hitz egitean bi mundu biltzen
dira bakar batetara
eta euskaraz hitz bakoitzean
mundura zabaltzen gara.



EUSKARAZ ERE,
NATURALITASUNEZ